

Zertan den Euskadi

2013ko Lehen Seihiilekoa
Ekonomia Analisia

- **Europa eta Espainiak premia dute** erreformak burutzeko zabaldutako aukera aprobetxatzekoa, banku batasuna sendotu, batasun ekonomikoan aurrera egin eta hazkunde aurreikuspenak hobetzeko.
- **Euskadi: barne-eskariaren doitze leunagoa**, desoreka txikiagoei esker.
- **Kanpo sektoreak hazkundeari ekarpen txikiagoa egin dio Espainian baino**, Europako herrialde nagusien pisuagatik.
- **Adierazle fiskalen egoera hobeak ahalegin txikiagoa ahalbidetzen du** defizit helburuak betetze aldera.

Aurkibidea

1. Editoriala	4
2. Kanpo ingurunea	6
3. Kanpo sektorearen ekarpen handiagoak ez du barne-eskaria konpentsatzen	9
1. Errekoadroa. Jarduera ekonomikoari buruzko BBVAren inkestak. Epe laburrera hobetzeko perspektibarik ez	24
4. Autonomia-erkidegoen finantzak, boom garaian eta krisi garaian (2003-12)	26
5. Taulak	33

Itxiera data: 2013ko apirilaren 23a

1. Editoriala

Munduko ekonomia hazkundearen gaineko aurreikuspenak baikorrak dira, Europan finantza-tentsioen gutxitzearen ondorioz, AEBn zerga igoera automatiko eta orokorra hein batean saihesteko lortutako akordioengatik, eta garatze bidean diren zenbait ekonomiaren jardueraren bizkortzeagatik, Txinakoa bereziki. Ingurumari honi mesede egiten diote hartutako politika ekonomikoko erabakiek, eta mundu-hazkundean pixkanakako gorakada ahalbidetzea espero da, 2012ko % 3,2ko hazkundetik, 2013an % 3,6kora eta 2014an % 4,1era. Hala ere, susperraldiak jarraipena izan dezan, politika egokiekin jarraitzea beharrezkoa da, nola AEBn hala eurogunean ere. Azken horretan, Zipreko krisiaren konponbide gorabeheratsuak eragin ziurgabetasunak erakusten du, ezinbestekoa dela banku-batasunerako pausuak finkatzea, ikuskaritza bateratuaren eta banku-krisien kudeaketarako mekanismoen ezarpen eraginkorrarekin.

Espanian ere, zenbait faktorek urte hasieratik finantza-tentsioak gutxitzea eta finantziazio merkatuen pixkanakako berrirekitzea ahalbidetu dute, 2012ko lehen erdian ikusitako atzerriko kapitalen irteerari buelta emanez. Lehenik, herri-administrazioak burutzen ari diren zerga-doitzea fruituak ematen hasi da. Bigarrenik, finantza sistemaren birkapitalizazio, saneamendua eta berregituraketan aurrerapen esanguratsuak egin dira. Hirugarrenik, ordainketa balantzaren defizitaren zuzenketa azkartu da, azken hilabeteotan superabita agertzeraino. Azkenik, BPGren 2012ko uzkuartzea (% -1,2), BBVA Research-ek esperotakoaren ildotik, urtearen lehen erdian analisten kontsentsuak esperotakoa baino txikiagoa izan da.

Ingurumari horretan, Euskadiko ekonomiak % 1,4ko uzkuartzea izan zuen 2012an, Espainiak adinakoa, nahiz eta uzkuartze horren osagaiak apur bat ezberdinak izan. Alde batetik, barne eskariaren atzerakada Espainiakoa baino leunagoa izan zen (hedapen garaian nahiz krisian desoreka ekonomikoak txikiagoak izatearen ondorioz) baina, bestetik, kanpo eskariaren ekarpen txikiagoa izan zuen Euskadik, merkatal bazkide nagusi dituen Europa erdiguneko herrialdeen moteltzeagatik eta Espainiako gainontzeko lurraldeetara eginiko salmenten jaitsieragatik. Epe laburrean, euskal ekonomiak 2013an hondoa jotzea espero daiteke (% -0,7), 2014an berriz ere hazkundera izateko (% +1,2). Ildo horretan, BBVAren Jarduera Ekonomikoari buruzko Inkestaren emaitzek erakusten dute euskal ekonomiaren uzkuartzea leuntzen ariko litzatekeela eta bigarren hiruhilekorako aurreikuspenek ere joera hori mantenduko luketela baina, oraindik ere, zailantza askorekin.

Aurrera begira, bat baino gehiago dira ekonomiaren hobekuntza hori azaltzen duten faktoreak. Kanpo eskariaren aldetik, munduko ekonomiaren suspertzeak eta finantza tentsioen gutxitzeak, esportazioen bilakaera hobea lagundu beharko lukete, EBz kanpora bideratutakoetan gutxienez. Aldiz, EBra zuzendutako esportazioek eta, bereziki Espainiara zuzendutako salmentek (euskal salmenta guztien erdia) hazteko zailtasunak izango dituzte, euroguneako ekonomiaren suspertzeko aurreikuspen mugatuengatik eta Espainiako ekonomiak oraindik ere dituen zailtasunengatik. Barne eskariaren aldetik, aldiz, berriak positiboagoak dira: higiezinaren sektorean eskaintzaren doitzera bukatzetik gertu da eta, beraz, sektoreak jarduerari egin ekarpen negatiboa bukatzeaz da, enplegu suntsiketarekin batera. Gainera, zerga finkatze prozesuak oraindik ere barne eskaria mugatzen jarraituko duen arren, Euskadiren adierazle fiskalek egoera nabarmen hobea dute erkidego autonomoen batez bestekoak baino. Beraz, 2013an egin beharreko ahalegina txikiagoa izango da, datozen urteetarako hartutako konpromezuak betetzen jarraitze aldera.

Gai hau berariaz landu da aldizkari honen atal batean, denboran erkidegoek izandako diru sarrera eta gastuak aztertuta. Euskal Autonomia Erkidegoaren gastuen joera hedakorra ez zen besteena adinakoa izan hedapen aldiaren azken aldera. Horrezaz gain, foru-erregimen finantzarioaren berezitasunak medio, Euskadik ez zuen izan diru sarreraren mantentze artifizialik krisiaren lehen zatian, horixe gertatu baizen erregimen komuneko erkidegoetan. Horrek gastuaren doitzeko goiztiarrago baina leunago batera behartu zuen eta, ondorioz, defizitaren zuzentze jarraituagoa. Gainera, jardueraren hobekuntza leunak diru sarrerak bultzatu zituen. Orohar, beraz, aldagai fiskaletan egoera hobea du erkidego honek eta beste batzuk baino ahalegin txikiagoa egin beharko du zerga finkatze helburuak betetzeko.

Datozen urteetarako, Euskadiren ezaugarri bereziek, ekonomiaren irekitze maila altuak eta eduki teknologikodun sektoreen garrantziak, gomendagarri egiten dute esportazioen dibertsifikazio ahaleginak jarraitzea, nola ikuspuntu geografikotik hala produktuenetik. Lehen alorrean, emaitzak lortu dira: euskal esportazioak handiagoak dira munduko gainontzeko herrialdeetara, Espainia gabeko eurogunera baino. Bigarren alorrean, ekipo-ondasunen eta semimanufakturen pisu handiak esportazioen ziklikotasuna bultzatzen dute. Aurrera begira, Euskadiren ahaleginak bere enpresen lehiakortasuna handitzen jarraitzera bideratu behar dira, Espainiako beste eskualde batzuekiko duen abantaila konparatiboa indartzeko. Horretarako, funtsezkoa da I+Dn ahaleginak mantendu eta are handitzea, traba burokratikoak eta enpresa kostuak txikituz, eta lan, ondasun eta zerbitzu merkatuen eraginkortasunean aurrera eginez.

2. Kanpo ingurunea


Agertoki ekonomiko globalaren gaineko ikuspegi baikorra...

Agertoki ekonomiko globalaren aurreikuspenei buruzko pertzepzioa hobetzea eragin zuten, Europan finantza-tentsioak murrizteak, AEBn zerga igoera automatiko eta orokorra saihesteko hartutako erabakiak -partziala-, eta garatze bidean diren zenbait ekonomiaren jardueraren azelerazioak, Txinakoak bereziki. Politika ekonomikoan hartutako erabakiek, 2012ko azken zatian eta 2013ko hasieran abiarazitakoek, sustatu dute ingurune onuragarriago hori; horren guztiaren ondorioz eta mundu-hazkundeaz ari garela, 2012an % 3,2ko gorakada izatea espero da, % 3,6koa 2013an eta % 4,1ekoa 2014an. Hala ere, susperraldiak jarraipena izan dezan, politika egokiak garatu beharko dira, bai AEBn eta baita eurogunean ere. Azken horretan, Zipreko banka krisiaren konponbide prozesu gorabeheratsuak eragin ziurgabetasuna desagertuz joango da baldin eta gertaera horrek, azkenean, banku-batasunerako bidearen finkatzea badakar berarekin.

Dena den, badira zenbait arrisku-faktore, egoera hori beherantz lerra dezaketenak. Hazkunde global txikiagoa gertatzeko arrazoiak honako hauek lirateke: finantza-tentsioak areagotzea eta konfiantza maila txikitzea, Europako agintariak euroa sendotzeko duten konpromisoaren inguruan zalantzak sortzen badira berriro; oraingo, zalantza horiek ondo mugatuta daude, bai EBZk joan den uztailan egin zuen iragarpenaren ondorioz, bai inguruko herrialdeek moneta bakarra babesteko hartutako erabakien ondorioz. Tentsioak gertatuz gero, beharrezkoa izango litzateke finantza-babeserako bertze erabaki batzuk hartzea, eta, hala gertatuko balitz, euroguneak atzeraldian jarraituko luke 2013. urtean. AEBri dagokionez, arriskutsua litzateke eurogune berriz krisi baten eraginari epe ertainera zergak finkatzeko edo epe laburrera zorraren puntu gorena handitzeko erabakirik hartu ez izanaren eragina gehitzea. Hala ere, eremu garatuenetan politikak zehazteko eta abiarazteko orduan egindako aurrerapenak nahiz garatze bidean diren herrialdeek hazkunderako erakutsitako erresistentzia ikusita, arrisku hori joan den udazkenean baino txikiagoa da.

1. Grafikoa


Konfiantza adierazlea (PMI)



Iturria: Markit eta BBVA Research

2. Grafikoa

Munduko BPGren hazkundea



Iturria: BBVA Research

EBZk hartutako erabakiez eta banku-batasunean egindako aurrerapenez gain, Espainian, bertze hainbat faktore lagungarri izan dira finantza-merkatuetan tentsioak murrizteko eta finantza-merkatuak berriro irekitzen hasteko, poliki bada ere eta irekitze hori erabatekoa izan ez den arren; faktore horiei esker, 2012ko lehen urte erdian gertatutako atzerriko kapitalaren irteerak atzera egin du. Faktore horien artean, lehenik, administrazio publikoak egiten ari diren zerga-doikuntza aipatu behar da, emaitzak ematen hasi dena jada, 2012ko itxierako defizit publikoari buruzko aurrerapen-datuetan ikus daitekeen moduan: BPGren % 6,7 (finantza-sektoreari emandako

laguntzak kontuan izan gabe). Hori guztia diru-sarrera publikoak handituz eta gastua murriztuz lortu da, atzeraldi giroak jarraitu arren. Bigarrenik, aurrerapen nabarmena gertatu dela erran behar da, Espainiako finantza-sistemaren birkapitalizazioa, saneamendua eta berregituraketa gardentasunez eta handinahiz sustatu baita. Hirugarrenik, ordainketa-balantzaren defizitaren zuzenketa azkartu da, eta azkeneko hiru hilabeteetan superabita erakutsi du. Azkenik, BPGk 2012an izandako jaitsiera (% -1,4koa), BBVA Research-en aurreikusi modukoa izan da, urtearen lehen erdian merkatu kontsentsuak (hein handian analista atzeritarrek) espero zuena baino txikiagoa, orain, Espainiak atzeraldi, defizit publikoaren handitze eta zerga-murrizketa gehiago behar izateak sortutako sorgin-gurpilean erortzeko probabilitate txikiagoa duela baitio kontsentsu horrek.

Espainia: behea joko du 2013an, eta 2014an suspertzen hasiko da

Aurreikuspenen arabera, ekonomiak behea joko du 2013. urtean, eta BPGk % -1,1eko beheraldia izango du. Sektore pribatuko doikuntza-prozesuek aurrera jarraituko dutela eta zergak finkatzeko prozesu handinahi horretan neurri gehiago abiaraziko direla kontuan hartuta, barne-eskariak aurtan ere atzeraldia izango duela ziurta dezakegu. Hala ere, bada nahiko arrazoi pentsatzeko 2014. urtean ekonomiak jardueraren hazkunde neurritsua izango duela, % 1,1ekoa (ikus 1. Koadroa). Esportazioek sendotasun handia erakutsi dute, eta, Europako eskariak izandako beherakadaren ondoren, esportazioen helmugak dibertsifikatu egin dira, lehiakortasunari eutsiz. Munduko ekonomiak susperraldiari eusten badio eta finantza-tentsioek txikitzen jarraitzen badute, inbertsio-aurreikuspenak hobetu daitezke. Era berean, higiezinaren sektorearen doikuntza amaitzen ari da, eskaintzari dagokionez. Metatutako desoreken absortzioa nahiko motela izango den arren, sektoreak ez du eragin negatiborik edukiko hurrengo urteetako hazkundean. Azkenik, zergak finkatzeko ahalegina aurreko bi urteetako baino txikiagoa izango da 2014. urtean, doikuntza-neurriei dagokienez.

Nolanahi ere, agertoki horretan ez dira arriskuak desagertu. Finantza-tentsioak murriztu egin diren arren eta EBZren laguntza baldintzatua eskatzeko beharrik izan ez den arren, ekonomiak hainbat arriskuri egin beharko die aurre, kanpoan nahiz barnean. Hortaz, beharrezkoa da une honetan ireki den leihoa baliatzea, ekimenez jokatzeko eta Europan eta Espainian aurrerapen gehiago bultzatzeko, hala, erreformak, konfiantzak eta hazkundeak elkar elikatuko duten sorgin-gurpila sendotu ahal izateko. Europan, nahitaezkoak izango dira gorago aipatutako banku-batasunerako aurrerapenak. Espainian, 2013ko defizitaren helburuan malgutasunez jokatzeko den edo ez albora utzita, herri-administrazioek hileroko ebaluatu beharko dituzte zergak finkatzeko aurrerapenak, bai atzeraldia nagusi den ingurunean diru-sarreraren gaineko ziurgabetasuna sortzearen ondorioz, bai gastu publikoaren kontrol eraginkorra egiteko. Zergak finkatzeaz gain, bertze hainbat erreforma egin behar dira oraindik ekonomia espainiarraren hainbat esparrutan. Bertzeak bertze, merkatuaren batasuna lortzeko, zerbitzuen sektorea liberalizatzeko, enpresen finantziaketa hobetzeko, giza kapitala eta kapital teknologikoa handitzeko, herri-administrazioen eraginkortasuna areagotzeko, pentsio-sistemaren iraunkortasuna bermatzeko edo mendetasun energetikoa murrizteko hartuko diren erabakiak hagitz garrantzitsuak izango dira. Lan-merkatuaren egoera larria ikusita, beharrezkoa da ziurtatzea azkeneko lan-erreforman zehaztutako tresna guztiak eraginkorrak direla, eta baita behin-behinekotasuna murrizteko, produktibitatea eta enplegarritasuna handitzeko, enpresen eta sektoreen arteko enplegu berresleipena azkartzeko eta enpleguaren arloko politika aktiboen eta pasiboen eraginkortasuna hobetzeko neurri osagarriak hartzea ere.

1. Koadroa

Espainia: aurreikuspen makroekonomikoak

(% u/u, kontrakorik adierazi ezean)	1H12	2H12	3H12	4H12(e)	2011	2012	2013(a)	2014(a)
Azken kontsumoaren gastua (AKG) nazioan	-2,0	-2,3	-2,6	-3,3	-0,8	-2,5	-4,0	-0,7
AKG, pribatua	-1,3	-2,2	-2,1	-3,0	-1,0	-2,1	-2,8	-0,3
AKG, familiak	-1,3	-2,2	-2,1	-3,0	-0,8	-2,2	-2,8	-0,3
AKG, herri-administrazioak	-3,8	-2,8	-4,0	-4,1	-0,5	-3,7	-7,2	-1,8
Kapital-eraketa gordina	-7,1	-8,8	-9,2	-9,7	-5,5	-8,7	-6,8	2,6
Kapital finkoaren eraketa gordina	-7,4	-9,2	-9,7	-10,3	-5,3	-9,1	-6,8	2,6
Aktibo finko materialak	-8,1	-10,0	-10,7	-11,0	-5,8	-10,0	-7,4	2,4
Ekipoa, makineria eta landatutako aktiboak	-5,1	-6,4	-7,0	-7,9	2,3	-6,6	-1,5	6,4
Ekipoa eta makineria	-5,2	-6,5	-7,0	-7,9	2,4	-6,7	-1,7	6,4
Eraikuntza	-9,5	-11,6	-12,4	-12,3	-9,0	-11,5	-10,2	0,3
Etxebizitza	-6,8	-7,9	-8,7	-8,7	-6,7	-8,0	-8,3	2,1
Beste eraikin eta eraikuntza batzuk	-11,9	-14,9	-15,8	-15,7	-11,0	-14,6	-12,2	-1,6
Aktibo finko immaterialak	3,4	2,7	4,8	-0,5	3,1	2,6	0,4	5,4
Izakinen bariazioa (*)	0,0	0,0	0,1	0,1	-0,1	0,1	0,0	0,0
Barne-eskaria (*)	-3,1	-3,8	-4,0	-4,7	-1,9	-3,9	-4,6	0,0
Esportazioak	2,1	2,7	4,2	3,2	7,6	3,1	6,3	8,2
Inportazioak	-5,9	-5,2	-3,4	-5,4	-0,9	-5,0	-4,4	5,8
Kanpo-saldoa (*)	2,4	2,4	2,4	2,8	2,3	2,5	3,4	1,1
BPG mp	-0,7	-1,4	-1,6	-1,9	0,4	-1,4	-1,1	1,1
Pro-memoria								
BPG, etxebizitza arloko inbertsiorik gabe	-0,3	-0,9	-1,2	-1,5	1,0	-1,0	-0,7	1,0
BPG, eraikuntza gabe	0,7	0,3	0,0	-0,4	2,1	0,2	0,1	1,2
Enplegua guztira (BAI)	-4,0	-4,8	-4,6	-4,8	-1,9	-4,5	-3,8	-0,2
Langabezia-tasa (bizt. akt. %)	24,4	24,6	25,0	26,0	21,6	25,0	26,8	26,1
Enplegua guztira (l.o.b.)	-3,7	-4,7	-4,6	-4,7	-1,7	-4,4	-3,4	-0,4

(*) Hazkundeari ekarpenak; (e): estimazioa; (a): aurreikuspena
Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3. Kanpo sektorearen ekarpen handiagoak ez du barne-eskaria konpentsatzen

Aurreko argitalpenean (2012ko lehen seihiilekoan), BBVA Research-ek Euskadiko eszenatokia 2012. urtean konplexua izango zela aurreratu zuen: BPGren % 0,6ko beheraldia aurreikusi zuen, bi urteko hazkunde handiaren ondoren. Barne-eskaria ahulak, eta 2011ko azken hilabeteetarako goia jotzen ari ziren esportazioek, hazkunde mugatu zuten. Euskadiko ekonomiaren beheraldi berriaren arrazoi nagusiak honako hauek izan ziren: Europako ekonomiak eragindako ziurgabetasuna, zor subiranoaren krisia eta azken honen eragin negatiboa finantziazioan, kapital-fluxuetan eta merkataritza-bazkide nagusien hazkunde-aurreikuspenetan.

Ordur geroztik, zenbait gertaerek are gehiago nahastu dute egoera. Espainiako Eskualde Kontabilitateari buruzko informazioaren zuzenketak Euskadiko hazkundearen berrikuspena ekarri zuen, eta puntu erdi jaitsi zuen 2011n, % 1,3tik % 0,8ra igaroz. Horrez gain. Horren ondorioz, finantza-tentsioek altutik jarraitu zuten, 2012ko udazkenean goitituz; eta, Europako erdiguneko ekonomia nagusiek aurreikusitakoa baino jarduera txikiagoa izan zuten, bereziki Frantziako ekonomiak, berriro ere atzeraldian sartu baizen. Espainiako ekonomiaren kasuan, urte osoari zegozkion zifrek ez zuten ia desbideratzerik jasan, eta % -1,4ko beheraldia izan zuen (duela urtebete % -1,3ko beheraldia aurreikusi zen), baina laugarren hiruhilekoan beheraldi gogorra pairatuta. Uzkuertze hori ez zuen barne eskariaren zerga doitzearikiko erreakzioak soilik eragin, zerikusia izan zuen baita ere Europako ekonomiaren geldotzearen ondorioz kanpo sektoreak pairatu atzeraldia. Horren guztiaren ondorioz, euskal ekonomiaren jarduera espero baino gehiago uzkurtu zen, % 1,4 jaitsiz 2012an (% -1,2 Eustat-en aurreikuspenen arabera).

Euskadiko ekonomiak desoreka txikiagoak jasan zituen hedapen-aldian eta ondorengo krisian, eta, horri esker, desorekak zuzentzeko beharra txikiagoa denez, barne-eskariaren doitzea ere beste erkidego batzuetan baino txikiagoa izatea ahalbidetu du. Lehenik, estatuko BPG per capita handienetakoa du Euskadik, langabezia-tasa txikienetakoa eta aurrezki-tasa altua lagun. Hiru faktoreok batuz gero, Euskadiko familiak errenta-talka negatibo bat jasateko gaitasun handiena dutenen artean daude, eta, horri esker, zerga doitzek edo finantza tentsioek eragin BPGren beheraldia ez da sorgin gurpilean sartu kontsumoaren edo inbertsio pribatuaren murrizketa gehigarriekin.

Bigarrenik, higiezinaren boomak ondorio txikiagoak izan zituen erkidegoan, bi eragin hauek batu zirelako: batetik, lan egiteko adindun biztanleriaren hazkunde erlatibo txikiagoa, eta, bestetik, sektore turistikoaren pisu txikia; horrek etxebizitzaren eskaria mugatu zuen.

Azkenik, Euskadiko egoera Espainiako batez bestekoa baino hobea da hazkunde eta kontrako girora egokitze gaitasuna errazten duten egiturazko oinarritzko adierazleei dagokienez, hala nola giza kapitalaren maila, enpresa jardunerako askatasuna (beste autonomia-erkidego batzuetan mugatuago dago), ikerketarako ahalegina edo azpiegituren hornidura.

Horrez gain, Euskadik, kanpo sektorera duen irekitasunari esker, hazkunde-diferentzial positiboa lortu du 2009ko krisiaren ondorengo lehen urteetan. Hala ere eta, arrazoi berberagatik,, Europako ekonomiak beheraldia izan zuen aurreko urtearen azken zatian, eta horren eragina nabarmenagoa izan da Euskal Autonomia Erkidegoan: esportazioak murriztu egin dira eta aurreko diferentzial positiboa eten egin zen 2012. urtean. Azken horrek nabarmentzen du Euskadi esportazioek dibertsifikazio falta erakusten dutela, bereziki esportatutako produktuen ugaritasunari dagokionez, baina baita esportazio horien helmuga geografikoei dagokienez ere, berauen erdia baino gehiago zuzentzen baita Espainiako gainontzeko lurraldeetara. Horren ondorioz, zikloa sektore eta herrialde gutxi batzuen jarduerari lotzen zaio soilik, eta ezaugarri hori arriskutsua da ekonomiarentzat, 2012. urtean ikusi ahal izan denez. Hala, 2012. urtean kanpo-sektorearen ekarpena handitzea ez da esportazioen hazkundearen ondorio izan -horiek behera egin arren gertatu da-, inportazioak are gehiago murriztearen ondorio baizik.

Azkenik, zerga-arloari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko kontuen egoera beste erkidego batzuetakoa baino hobea da defizitari dagokionez, 2012rako zehaztutako helburua bete baita, eta, bereziki, zor mugari dagokionean: izan ere, BPGren gaineko zor autonomikoaren bigarren ratio txikiena du, eta, une honetan. Finantza Iraunkortasunerako Hitzarmenak 2020. urterako zehaztutako helburua betetzen du.

Laburbiltzeko, kanpo-sektorearen espezializazio handiak epe laburrera sortutako arriskuak kontuan izanda ere, Euskadik abantaila du egin beharreko doitzeei aurre egin eta, berriro ere, hazkunde positiboa izateko (ikusi 2. Koadroa).

2. Koadroa

Erkidego Autonomokako arrisku adierazleen mapa

	MAD	EUS	NAF	ARA	KNT	GLE	ERR	AST	KAT	KAN	GAL	VAL	BAL	MUR	GMA	EXT	AND
Epe laburreko adierazle sintetikoa	1	0	1	1	1	2	2	2	2	2	1	3	2	2	2	2	2
Etxebizitza-Inbertsioa (saldu gabeko stocka / etxebizitza-parkea)	1	1	0	2	0	1	3	2	2	2	1	3	2	2	2	0	2
Etxebizitzaren eskuragarritasuna (ahalegin gordina)	2	3	1	1	2	1	1	2	2	2	1	2	2	1	1	1	2
Kanpo sektorearen dibertsifikazioa:	1	2	3	2	1	2	1	1	2	1	2	2	1	1	1	1	1
Sektore pribatuaren gain-zorpetzea	3	1	2	2	2	1	2	1	3	3	1	3	3	3	2	1	3
Langabezia-tasa	3	2	2	2	2	3	2	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
Zor autonomikoa (BPGren %)	2	2	3	3	3	3	3	3	3	2	3	3	3	3	3	3	3
BPG per capita erlatiboa	0	0	1	1	2	2	1	2	1	2	2	2	2	2	2	3	2
Irekitasun komertziala (ondasunak eta turismoa)	2	1	2	2	2	2	2	2	0	1	1	2	1	0	2	3	2
Familien aurrezki-tasa	2	0	0	1	1	2	1	2	2	3	2	2	3	2	1	1	2
Askatasun ekonomikoaren indizea	0	1	1	2	2	1	1	2	2	1	2	2	1	2	2	3	3
Giza kapitala	0	0	1	1	1	2	2	1	2	2	2	2	2	2	3	3	2
I+G / BPG	0	0	0	2	2	2	2	2	1	2	2	2	3	2	2	2	2
Azpiegiturak / LAP	2	1	1	1	1	1	2	1	2	2	2	2	3	3	2	2	3
Adierazle globala	0,4	0,4	0,6	1,1	1,1	1,1	1,3	1,3	1,3	1,7	1,9	1,9	2,3	2,3	2,3	2,4	2,4

Oharra: adierazleak batez bestekoarekiko desbideratzeak kontuan hartuta adierazten dira. Kolore berdeak (edo zenbaki txikiagoak) adierazten du adierazle horren maila erlatiboa batez bestekoa baino hobea dela. 3 zenbakiak (morea) batez bestekoa baino okerragoa dela adierazten du.

Iturria: BBVA Research


Baldintzatzaile horiekin bat etorrita, Euskadiko barne-eskaria uzkuritu egin zen 2012an baina, beti ere, Espainiakoa baino gutxiago; gainera, ezaugarri barne-eskariaren osagai osagai guztietan ikus daiteke (ikusi 3. Grafikoa). Hala ere, kanpo-sektorearen jarrerak, euskal ekonomiaren oinarri denak, ez zuen bilakaeraren hobekuntza horretan lagundu.

Euskadiko barne-eskariaren oinarri hobea

Beraz, 2012. urte osoan, barne-eskariaren bilakaera negatiboa izan zen. Hirugarren hiruilekoan baino ez zen eten bilakaera hori, inbertsio eta kontsumo pribatuaren gorakada txikiaren ondorioz, irailean BEZa igo aurreko erosketen aurreratzea medio. Hala ere, jokaera hori -Espainiako gainerako erkidegoetan ere gauza bera gertatu zen- laugarren hiruilekoan gertatutako beheraldi gogorak konpentsatu zuen (ikusi 4. Grafikoa).

3. Grafikoa


Eskariaren osagaiak: bilakaera (u/u, %) eta 2012ko BPGri ekarpena (p.p.)



Iturria: BBVA Research, Eustat eta INEn oinarrituta

4. Grafikoa

Euskadi: barne eskaria eta hazkundeari ekarpenak (h/h, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Eustat-en oinarrituta


Euskadiko familien kontsumoaren beherakada hori enpleguaren suntsitze-prozesu batek baldintzatu zuen (ikusi lan-merkatuari dagokion zatia), eta, horrez gain, ziurgabetasunaren handitzeak, soldaten mugatzeak eta zerga-doitzearen azkartzeak. Zehazki, iazko hirugarren hiruhilekoan izandako BEZaren (Balio Erantsiaren gaineko Zerga) igoerak urteko batez besteko kontsumoaren murrizketa azaltzen du hein handian, baina aldakortasun handia ere txertatu zuen, izan ere, behin-behineko aldaketa eragin zuen kontsumitzaileen jokabidean, gastuak aurreratu baitzituzten, zerga-hazkundera saihesteko. Berbarako, txikizkako salmenten indizea % 1 baino gehiago handitu zen Euskadin 2012ko hirugarren hiruhilekoan, laugarrenean %6 uzurtuz. 2013ko otsailera arteko datuen arabera, adierazle horri dagokionez, badirudi 2013ko lehen hiruhilekoan kontsumoak joera aldatu duela, berriz jaitsi den arren, aurreko hiruhilekoan baino indar gutxiagoz murriztu baita (ikusi 5. Grafikoa).

Bestalde, zergak finkatzeko egindako ahaleginaren ondorioz, kontsumo publikoak % 2ko uzurtzea jasan zuen iaz, 2011. urteko geldialdiaren ondoren (% -0,1). Hori dela eta, 2012. urtean, kontsumo publikoak 4 hamarren murriztu zuen jardura ekonomikoaren bilakaera. Nabarmenezkoa da beste autonomia-erkidego batzuetan ez bezala, beheratze hori ez zela enplegu publikoaren murrizketaren ondorio izan, enplegu publikoak gora egin baitzuen 2011ko laugarren hiruhilekoaren eta 2012ko laugarren hiruhilekoaren artean (ikusi 20 Grafikoa, lan-merkatuari dagokion zela). Ildo beretik, eraikuntzaren sektoreko inbertsioak zuzenketa jasan zuen 2012an, eta zuzenketa hori zergak finkatzeko prozesuari lotu behar zaio baita ere; 2011. urtean lizitazio osoaren % 36ko murrizketa eman zen. SEOPAN eta Sustapen Ministerioak argitaratutako datuak kontuan hartuta, lizitazio ofizialak behera egiten jarraitu du 2012. urtean (% 5,6 inguru), eta eraikuntzan gertatu dira beheraldi nabarmenenak, ingeniariaritzaren baimen baimen gehiago. Hala, lizitazio ofizialak % 50eko murrizketa izan du jada 2006tik (hedapenaren maila gorena) eta 2008an (eraikuntzaren maila gorena Euskadin) izandako gehieneko kopuruekin alderatuta. Dena den, lizitazioaren doitzia 2012. urtera arte Espainiakoa baino txikiagoa izan zen, denbora-tarte berean % 88 murriztu baitzen.

Bestalde, esportazioen beheraldiaren ondorioz, ekipo-ondasunetako inbertsioak % 4ko uzkurdura jasan zuen, 2011. urteko hazkunde handiaren ondoren (% +7). Konfiantza Industrialaren jaitsierak ere eragingo zuen uzurtze horretan (ikusi 6. Grafikoa), eta baita finantza-tentsioek ere. Bilakaera negatibo hori moteldu egin zen behin-behinean 2012ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan, hainbat arrazoiengatik: erosketak, kasu honetan inbertsioak, aurreratzea BEZaren igoeraren aurretik, zerga-doitzeak eta, ziurrenik, Muskizko petrolio-planta berritzera zuzendutako inbertsio energetikoengatik. Horrenbestez, Kapital Finkoaren Eraketa Gordinak, orohar, % 5,4ko beheraldia izan zuen 2012an (% -1,8koa 2011n). 2013ko lehen hiruhilekoan, Euskadiko industria-giroaren indizearen mailak inbertsioaren bilakaera oraindik ere arinki negatiboa izango dela pentsarazten du.

5. Grafikoa


Xehekako merkataritza indizea (h/h, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

6. Grafikoa

Kapital Finkoaren Eraketa Gordina
eta Industria-giroaren indizea



Iturria: BBVA Research, INEn eta MICYT-en oinarrituta


Etxebizitza-arloaren doitze gogorra

Bi urtetan beherakada neurritsua gertatu ondoren, 2012. urtean etxebizitza-arloko jarduerak beheraldi sakona izan zuen, urtean % 40ko erritmoan atzera eginez. Horren ondorioz, eraikitzen hasitako etxebizitzek minimo historikoetan jarraitzen dute, eta hazkunde-tasetan gorabehera handiak gertatzen dira hiruhileko batetik bestera. 2013ko lehen bi hilabeteetan ere hala gertatu dela dirudi (ikusi 7. Grafikoa).

Bestalde, 2012. urtean, etxebizitzaren salmentek aurreko urtekoaren antzeko bilakaera erakutsi dute, % 20 inguruko beherakada. Uzkuertze hori ez dator bat Espainian, batez beste, salmentek izan duten gorakadarekin (% 3,6koa 2011rekiko); gorakada hori zerga-arloan gertatutako aldaketaren ondorio izan da nagusiki. Espainiako Ogasunak etxea erosteagatikoen kenkaria ezabatu du 2013ko urtariletik, erkidegoko hiru foru-aldundiek ez bezala, eutsi egin baitiote zerga-onura horri. Hala, Espainian batez ere 2012ko laugarren hiruhilekoan gertatu erosketen aurreratzea ez da ikusi Euskal Autonomia Erkidegoan. Hala ere, etxebizitza-arloan bigarren zerga-aldaketa bat ere gertatu da, alegia, BEZa % 4tik % 10era igo da 2013ko urtariletik aurrera, eta horren eragina nabaria izan da Euskadiko etxebizitzaren salmenten erritmoan. Izan ere, hasierako aurreikuspen baten arabera, BEZaren igoerak % 5 inguruko eragin positiboa izan du salmentetan, hau da, 900 eragiketa ingurukoa. Eragin hori urteko laugarren hiruhilekoan gertatu zen soilik (ikusi 8. Grafikoa).


Hala ere, batez beste, etxebizitza-arloko merkatuaren desoreka txikiagoa da oraindik ere Euskadin Espainian baino, eta hala adierazten du saldu gabeko etxebizitza-kopuru txikiagoak. Eskariaren uzkuertzea gertatu arren, kopuru hori oso gutxi murriztu da, amaitutako etxeen kopurua ere murriztu delako, eta 2011n etxebizitza-parkearen % 2,1ekoa baldin bazen, 2012. urtearen bukaeran % 2,0koa zen. Hala, Euskadiko gehiegizko eskaintzaren maila 2009ko berbera da (ikusi 9. Grafikoa).

7. Grafikoa

Euskadi: etxebizitza berriak eraikitzeko baimenak (CVEC-ren datuak)



Fuente: BBVA Research a partir de fuentes nacionales

8. Grafikoa

Euskadi: zerga-aldaketak etxebizitzaren transakzioetan izandako eragina



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministeritza eta INEn oinarrituta

9. Grafikoa

Saldu gabeko etxebizitza berriak (etxebizitza guztien %)


Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioa eta INEn oinarrituta

10. Grafikoa

Euskadi: higiezinaren sektoreko 2012ko aldagaiak 2004-2007ko batez bestekoarekiko


Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministeritza eta INEn oinarrituta


2012an, zorraren eta defizitaren helburuak bete zituen Euskadik

2012. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoak gastuei eusteko politikarekin jarraitu du, eta gobernu zentralak zergak finkatzeko onartutako neurriak ere ezarri ditu; horren ondorioz, gastuetan murrizketa bat sumatu da, batez ere urtearen bigarren zatian, eta gastu arruntetan. Horrekin batera, aurreko urteko diru-sarrerekin alderatuta, susperraldi txiki bat izan da, eta, horren guztiaren ondorioz, autonomia-erkidego honen defizita BPGren % 1,4an kokatu da 2012an, gainerako autonomia-erkidegoetako azpitik (BPGren % -1,7), eta egonkortasun-helburuan zehaztutakoa baino 0,1 p.p. beherago. Bestalde, 2012ko ekitaldiaren amaieran, Euskal Autonomia Erkidegoaren zor bizia eskualdeko BPGren % 11,0 da, eta erlatiboki gutxien zorpetutako autonomia-erkidegoen artean bigarren tokian kokatu du horrek. Gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuta, Euskal Autonomia Erkidegoa nahiko posizio onean kokatzen du horrek guztiak, defizita BPGren 0,7 p.p.-ra murriztu beharko baitu urte amaierarako zehaztutako helburua betetzeko -BPGren % -0,7 murriztea- eta 2020an autonomia-erkidegoek lortu beharreko zor-mugatik (% 13) 22 p.p. azpitik baitago.

2013ari begira, Eusko Jaurlaritzak gastuak % 10 inguru murrizten jarraitzea espero du, 2012ko hasierako kredituekin alderatuta –atal guztietan oro har, baina, bereziki, kapital-gastuetan-. Gainera, diru-sarreretan gainbehera txikiagoa izango denez (ia % 9koa), 2013ko ekitaldia BPGren % 0,7ko defizitarekin itxiko du. Aurrekontuen gauzatzeari buruz 2013ra arte emandako informazioa urte osorako adierazgarria ez bada ere, 16. Grafikoan ikus daitekeenez, Euskal Autonomia Erkidegoa otsailera bitartean superabit metatua izan duten zazpi autonomia-erkidegoetako bat izan da; oro har autonomia-erkidegoen multzoak BPGren % 0,1eko defizita izan duelarik. Ildo horretatik, aurreko urteetako joera ikusita eta EAEk nahiko doikuntza txikia egin behar duela kontuan hartuta (BPGren 0,7 p.p.), praktikan ez luke arazorik izan behar berriro ere egonkortasun-helburua betetzeko.

11. Grafikoa


Euskadi: finantziazio-ahalmena/beharra (BPGren %)



Iturria: BBVA Research, MINHAPen oinarrituta

12. Grafikoa


AAEE: defizita eta zor publikoa 4H12an (eskualdeko BPGren %)



Iturria: BBVA Research, MINHAPen eta BdEn oinarrituta

13. Grafikoa

AAEE: zor publikoa 2012. urte amaieran (eskualdeko BPGren %)



Iturria: BBVA Research, BdEn oinarrituta

Laburbiltzeko, 2012an, azkartu egin zen barne-eskari pribatu nahiz publikoaren jaitsiera. Honen arrazoiak izan ziren, nazioarteko finantza merkatuen tentsioak areagotzea, Espainiaren eta bezero nagusi diren zenbait herrialderen hazkundea moteltzea, eta langabezia nahiz familien errenta eskuragarria txartzea, zerga finkatze prozesuarekin batera.

Espainiako gainontzeko lurraldeetarako salmentek kanpo sektorearen norakoa finkatzen dute, berrindartze ahalmena mugatuz

Krisialdian zehar euskal ekonomiak ekarpen positiboa jaso du kanpo sektoretik, barne-ekariaren uzkurtzearen eragina lausotuz. 2012an ekarpena 1 p.p.-ra handitu zen, 2010 eta 2011koaren hiru hamarren gainetik. Eraitza hori inportazioaren jaitsierak eragin zuen, esportazioena baino handiagoa izan baizen. Hala, 2012an Euskadiren esportazioak %5,4 gutxitu ziren termino errealean, Espainian ez bezala, han % 3,1eko hazkundea izan baizuten. Aldiz, inportazioen jaitsiera % 6,4koa izan zen, kasu honetan ere Espainiakoa baino handiagoa (% -5,0) (ikus 15. Grafikoa).

Euskadiz kanpoko salmenten jaitsiera hiru ataletan zatitu daiteke: Espainiako beste lurraldeetara saldua, EBko beste herrialdeetarakoa, eta munduko gainontzekoetarakoa. Espainiako beste lurraldeetara saldutakoak, Euskadiko kanpo salmenten % 53, hazkunde handia izan zuen 2011n (% 34koa hain zuzen, urte horretako kanpo salmenten hazkundearen % 70 azaltzen duelarik), baina 2012an % 8 gutxitu ziren, Espainiako ekonomian atzeraldia ezartzearen ondorioz (ikusi 14. Grafikoa).


EBrako salmentek berriz, bezero diren herrialde nagusien portaera ez hain dinamikoa pairatu zuten, bereziki Alemania, Frantzia eta Italia. Horrenbestez, Espainia gabeko EBrako salmentek (euskal kanpo salmenten %22), 2011. urtean 4 p.p.-ko ekarpen positiboa egin zieten euskal esportazioen hazkundeari, baina 2012an 2 p.p.-en ekarpen negatiboa egin zien ordea, salmenta horiek % 7 murriztearen ondorioz.

Aldiz, munduko gainerako herrialdeetara saldutakoak (%25eko pisua du), Espainia gabeko EBrako saltzen dena gaintzeaz gain, 3 p.p. gehitu zizkion kanpo sektoreko joan etorriaren hazkundeari, bi urteetan %12 handituta.

Atzerrirako salmentek krisian izan duten bilakaerak euskal ekonomiaren berezitasun batzuk nabarmentzen ditu. Lehenik eta behin, 2010 eta 2011 urteetako hazkundeari egindako ekarpen handiagoak, krisi hasieran izandako jaitsiera handiagoaren isla dira hein batean. Baina Espainiak 2012an izandako bilakaera positiboaren aurrean, Euskadik atzera egin zuen kanporako salmentetan. Ondorioz, Espainiaren kanporako salmentak krisi aurreko garaikoen % 15 gainetik dauden bitartean, euskal esportazioak hedapenaldiaren amaieran izandakoaren azpitik daude (ikusi 16. Grafikoa). Beraz, kanpo salmenten bultzada txikiagoa izaten ari da, gainera hauen garrantzia euskal ekonomiarentzat handiagoa izanda.


Illo honetan, 2013ko lehen bi hilabeteetarako eskuragarri dauden datuek, ondasunen esportazioen gaineak, ez dute joera aldaketa bat gertatzen ari denik pentsatzeko zantzurik ematen, joera negatiboari eusten baitiote, Espainiakoei erakusten duten egonkortasunarekin alderatuz.

14. Grafikoa

Ondasunen euskal esportazioak. Hazkundea eta gune geografikoen araberako ekarpenak (p.p.)

Fuente: BBVA Research a partir de Datacomex y CEPREDE


15. Grafikoa

Esportazioak: h/h, %, UEEZ, errealak

Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

Euskal esportazioen fluxuaren nondik norakoak zerikusia du, noski, atzerrirako salmenten egiturarekin. Ekipo-ondasunen eta semimanufakturen pisu handiak, erosle dituen herrialdeetako inbertsioarekin lotzen ditu eta, hori, hein handi batean herrialdeetako konfiantzaren eta finantziazioaren eskuragarritasunaren menpe dago. Baldintza horiek euskal kanpo merkatuaren hiru laurdenetan txartu izanak (Espainian eta EBn) azaltzen du kanpo sektorearen bilakaera (ikus 17. Grafikoa).

16. Grafikoa

Esportazio errealak: Espainia eta Euskadi (mar.08=100, UEEZ)

Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

17. Grafikoa

Euskadiren egitura esportatzailea, 2008 vs 2012 (esportazio guztien gaineko %)

Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta


Lan-merkatua: epe laburreko bilakaera okerragoak konfiantza-galera azaldu arren, langabezian bereizgarri erabakigarria du alde

2012an, jarduera ekonomikoaren doikuntza nabarmen sumatu da EAEko lan-merkatuari dagozkion kopuruetan, Espainiako gainontzeko lurraldeekiko aldea mantendu arren.. Afiliatuen kopurua % 2,6 murritzuta zen 2012an (% -3,4 Espainia osoan), eta erregistratutako langabezia % 11,9 hazi zen (Espainian baino puntu bat gehiago). Dena den, epekako azterketa zehatzago bat eginda, epekako. Afiliatuen joerak beharaldi txikiagoa islatzen du 2012ko hirugarren hiruhilekoan, xehekako salmenten jokaera hoberekin lotuta egon daitekena, nahiz eta 2012ko

laugarren hiruhilekoan konpentsatuta gelditu zen. Dena den, % 1 inguruko tasa negatiboak erakusten jarraitu du afiliatzeen datuak, bai Espainian eta bai Euskal Autonomia Erkidegoan, baina, aldi berean, erregistratutako langabeziak egonkor eutsi dio 2013ko lehen hiruhilekoan.

18. Grafikoa


Gizarte Segurantzako afiliatzea:
Euskadi eta Espainia (UEEZ, h/h, %)



Iturria: BBVA Research, Gizarte Segurantzako datuetan oinarrituta

19. Grafikoa

Erregistratutako langabezia (UEEZ, h/h, %)



Iturria: BBVA Research, EEZPn oinarrituta


Sektoreka, ikuspegitik, batez ere urtearen lehen zatian zerbitzu pribatuek okerrera egin zutelako egin zuen behera enpleguak, bai eta industriak hirugarren hiruhilekoan behera egin zutelako ere, esportazioen beheraldia bizkortzearekin bat hain zuzen. Beraz, BAiren arabera, 2012an enpleguan izan den aldakuntza (% 6,0) zerbitzu pribatuetan enpleguak izan duen gainbeheraren emaitza da (% -5,5, eta 3 p.p.-ko ekarpena), bai eta industrian enpleguak izan duen gainbeheraren ondorio ere (%-1,8 u/u eta -2,4 p.p.); aldiz, eraikuntzan, enpleguaren suntsiketak (% 15,7) soilik 1,1 p.p. kendu dizkio enpleguari.

Dena den, 2012ko laugarren hiruhilekoak aurreko hiruhilekoek baino askoz erregistro hobeak erakutsi zituen. Zerbitzu pribatuetan, enplegu-mailak gora egin zuen bost hiruhilekotan lehen aldiz, % 1,3, hain zuzen (0,7 p.p. ekarpenean), eta, beraz, sektore pribatuak orotara enpleguan berriro ekarpen positiboa izan zezan ahalbidetu zuen, bost hiruhilekotan ekarpen negatiboa egin ondoren (ikus 20. Grafikoa).

Hala eta guztiz, EAEn enplegu publikoak pisu txikiagoa izateak eta, lehen ere adierazi dugunez, kontu publikoetan desoreka arinagoa izateak alde onik ekarri dio Euskadiri. Egiazki, sektore publikoak enpleguari egindako ekarpenak positiboa izaten jarraitu du urtearen lehen hiru hiruhilekoetan, eta soilik laugarren hiruhilekoan aldatu du ikurra. Hortaz, Euskadin enplegu publikoa % 2,5 hazi zen, eta Espainiako gainerako lurraldeetan, % 7 jaitsi zen.

20. Grafikoa

Euskadi: enpleguaren bilakera eta beronen hazkundeari ekarpenak (h/h, p.p.)




Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Finean, Euskal Autonomia Erkidegoak hobeto eutsi dio bere posizio erlatiboari batez beste, langabezia-tasa txikiena duen autonomia-erkidegoa izaten jarraitzen baitu, eta horren alde jokatu du behin-behinekotasun tasa txikiagoak (ikusi 21. eta 22. Grafikoa).

21. Grafikoa


Espainia: langabezia-tasa autonomia erkidegokan (4H12, biztanleria aktiboaren %)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

22. Grafikoa

Behin-behinekotasuna eta langabezia (2012, %)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Industria, kanpo-sektorearen bilakaerak baldintzatua

Eskaintzaren ikuspegitik eta, euskal ekonomian ondasunen esportazioen eraginarekin bat etorritik, 2012an BPGren jaitsieran ekarpen handiena sektore industrialak izan zuen (% -3,4 u/u), 8 hamarren galaraziz, % 1,4 jaitsi zen BPGri. Manufakturen industriak puntu oso bateko jaitsiera eragin zuen eta eraikuntza sektoreak beste sei hamarren. Honek zerikusi zuzena du erkidegoaren egitura ekonomikoarekin, industriara lerratuagoa, ekonomiaren laurdena baita, Espainiakoa baino 9 p.p. handiagoa (ikus 3. Koadroa).

Gainera, industria-produkzioaren gainbehera zertxobait handiagoa izan zen EAEn Espainian baino (% 7,8 vs % 5,9), bai urtean, bai hiru hileko hiru hileko (ikus 24 Grafikoa), eta horrek azalduko luke hazkundean ekarpen handiagoa izatea. Sektorez sektore, bai ekipo-ondasunek (funtsezkoak euskal esportazioetan) eta bai bitarteko ondasunek bilakaera negatiboa izan zuten urte osoan zehar, eta kontsumo-ondasun iraunkorrak izan ziren hiru hilekoaren batean hazkunde esanguratsuren bat izan zutenak (ikus 25 Grafikoa).

Jada aipatu den barne-ekonomiaren uzkuartze txikiagoa azaltzen du, aldiz, eraikuntza sektorea Espainian baino gutxiago jaisteak eta zerbitzu sektorearen ekarpen ia hutsak, txikiak merkataritzaren jaitsiera leun batekin.

3. Koadroa

Euskadiko BPGren hazkundea 2012an

	Hazkundea 2012an (%)	2012ko BPGn pisua (%)	2012an hazkundeari egindako ekarpena (%)	Espainiarekiko aldea	
				Hazkundea 2012an (%)	2012ko BPGn pisua (%)
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	2,1	0,7	0,0	-0,2	-1,6
Industria	-3,4	24,6	-0,8	-0,5	9,1
- Manufaktura-industria	-4,7	21,7	-1,0	-0,8	9,3
Eraikuntza	-7,2	8,9	-0,6	0,9	-0,4
Txikizkako eta handizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa; garraioa eta biltegiatzea; ostalaritza	-0,9	20,1	-0,2	0,2	-2,6
Informazioa eta komunikazioak	0,3	3,1	0,0	-0,7	-0,9
Finantza eta aseguruaren esparruko jarduerak	0,8	3,4	0,0	0,7	-0,5
Higiezinaren esparruko jarduerak	2,0	5,4	0,1	0,2	-1,8
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak; administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	0,0	6,9	0,0	0,7	0,0
Herri-administrazioa eta defentsa: nahitaezko gizarte-segurtasuna; hezkuntza, osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak	0,6	15,8	0,1	1,0	-1,0
Jarduera artistikoak, aisialdikoak eta entretenimendu-jarduerak; etxeko artikuluaren konponketa eta beste zerbitzu batzuk	0,7	3,0	0,0	1,3	-0,4
Balio erantsi gordina guztira	-1,5	91,8	-1,4	0,0	0,0
Produktuen gaineko zerga garbiak	-0,3	8,2	0,0	0,0	0,0
Barne-produktu gordina merkatu-prezioetan	-1,4	100,0	-1,4	0,0	

Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta. Eskualdeekako Kontabilitatea

Sektore nagusien bilakaera hiruhilekoka aztertzerakoan, desberdintasun bat ikusten da iaz hazkundearen eragin handiena izan zuten bi sektoreetan, BPGren hurrengo bilakaeran garrantzia izan dezakena. Eraikuntzak urtean zehar joera negatiboa islatu duen arren, berau apalduz doa (ikusi 23. Grafikoa), eta urtearen azken hiruhilekokoan hazkunde txiki bat ere izan du. Doikuntzen garai gogorra amaitzen ari denaren.


Aldiz, industriak ekarpen negatibo gorakorra erakutsi du urtean zehar, eta ekarpen negatibo handienarekin amaitu du azken hiruhilekoko. Otsailera arteko IPI osoaren datuek tasa negatiboak erakusten jarraitzen dute, eta, oraingoz, ekipo-ondasunetan izandako momentuko gehikuntza konpentsatu baino gehiago egiten dute (ikusi 24. Grafikoa).

Zerbitzuen arloan, berriz, ekarpen beherakorra ikus daiteke eta negatiboa 2012ko laugarren hiruhilekokoan, herri-administrazioen sektorean (osasun, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak barne dituen), eta, aurreikuspenen arabera, joera horri eutsiko zaio 2013an, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen gastuen muga ikusita. Nekazaritza eta Gainerako Zerbitzuek, bina hamarreneko ekarpen positiboekin, herri-administrazioen jaitsieraren eragina leundu zuten, hein batean.

BEZa igotzearen ondorioz zerbitzuen sektoreko jarduera-indizean ikusitako aldakuntza puntaletatik harago, 2012an Euskadin izan zuen bilakaera ez zen Espainian bezain negatiboa izan (% -4,8% vs % -5,9%), eta badirudi 2013ko lehen datuek joera hori berresten dutela.

23. Grafikoa


Euskadiko BPG eta hazkundeari ekarpenak (h/h, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Eustat-en oinarrituta.

24. Grafikoa


Industria-produkzioaren indizea (h/h, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

25. Grafikoa


Industria-produkzioaren indizea, osagaika: Euskadi (h/h, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

26. Grafikoa

Zerbitzu sektorearen jardueraren indizea (h/h, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Aurreikuspenak: 2013an hondoa jo eta 2014an susperraldia hasiko da

Euskal ekonomiak hurrengo hiruhilekoetan izango duen bilakaeraren gaineko aurreikuspenak hiru faktoreek azaltzen dute: sektore pribatuak metatutako desoreken zuzenketa-erritmoak, zerga-doikuntzarako prozesuaren jarraipenak eta esportazioen bilakaerak.

Berrindartzeko aukera mugatzen duen lehen faktorea, sektore pribatuak hedapen aldian metatutako desorekak eta berauen barneratzea dira. Aldizkari honen aurreko aleetan aipatu diren arren, enpresa eta familien gain-zorpetzea, etxebizitza berrien gain-eskaintza edo langabezia muga dira, bai kontsumo pribatuaren, bai inbertsioaren bilakaerarentzat. Edozela ere, desoreka horietan Euskadiren abiapuntua hobea da Espainiako gainerako lurraldeena baino, eta barne-ekonomiaren doitze txikiagoak ahalbidetu ditu horrek krisi garaian.

Doitze-fiskala da hurrengo hiruhilekoetan hazkunderaren mugatzaile izango den bigarren faktorea. Honi dagokionez, 2013rako gastu sabaiaren mugak (2012koa baino % 10 txikiagoa), urte amaieran defizit helburua betetzea sinesgarri egiten duen arren, langa jartzen dio sektore publikoaren hazkunderako ekarpenari eta berau ezingo da aurten positiboa izan. Nolanahi ere, euskal erakunde publikoek beste erkidegoetakoek baino tarte handiagoa dute, hazkundera eragin txikiagoa izango duten doikuntzak burutzeko, 2012an defizit helburua betetzearen ondorioz eta zorpetze maila 2020rako Egonkortasun Planak ezarri gehienezko mailaren azpitik izateari esker.

Hirugarren faktore esanguratsua, euskal ekonomiaren bilakaerarentzat, kanpo sektorearen jokaera da. Euskadiz kanpo-salmenten erdia baino gehiago espainiar merkatuari dagokiola ikusita eta horrek 2013an atzeraldian jarraitzen duen heinean, ezin da espero gune ekonomiko horretarako salmenten hazkunde azkarrik. Era berean, esportazioen zenbateko handi bat Alemania eta Frantziako merkatuetan kokatzen da, iazko azken aldera zuzenketa esanguratsua izan zutenak eta, nolanahi ere, 2013an dinamikotasun handirik ez dute izango. Hortaz, EBz kanpoko herrialdeetara zuzendutako salmentetan soilik espero daiteke hazkunde tasa positiboa eta esanguratsua.


Horregatik guztiagatik, 2013n jarraitu egingo du ekonomiaren uzkurraldiak, barneko doitzeen ondorioz eta Euskal Autonomia Erkidegoarentzat funtsezkoenak diren merkatuen dinamismo eskasagatik. Horrela, aukera gehien dituen eszenatokian, EAEko ekonomia % 0,7 uzkurtuko da aurten, eta 2014an, berriz, hazkundeak ibilbide positiboari ekingo dio berriro, % 1,2ko hazkundearekin. Horrek esan nahi du, Espainiako ekonomiarekin alderatuta, erkidegoak bere aldeko bereizgarriari helduko diola berriro ere. Hazkundera itzultzea eragingo duten faktoreen artean daude finantza merkatuetan ikusten den hobekuntza, atzerriko inbertsiogileen konfiantza berreskuratzea eta esportazioen lagungarri behar luken Europaren jardura berrindartzea. Honen inguruan, EAEko produktuen eduki teknologikoak eta ekipo-ondasun edo kontsumo-ondasun iraunkorrak izateak, berorien salmentak zikloarekin batera gehiago handitzea eragiten du, oinarritzakoagoak diren beste produktu batzuenak baino. Hortaz, bezero diren merkatuak suspertu ahala, Euskadik hazkunde positiboagoa izan dezan lagundu behar luke horrek, 2010ean eta 2011n gertu zen legez. Aurrekoak nabarmen uzten du eskualdearen egungo gaitasunei etekina atera behar zaiela, esportazioek geografikoki eta sektoreka duten dibertsifikazioa handitzen jarraitzeko eta, horretarako, gehien hazten diren kanpo-merkatuen dinamismoa baliatzeko aukera emango duten merkatu eta produktuak bilatu beharko dira.

Bestalde, bertako egoerari dagokionez, zenbait doitze prozesu amaitzear dago, esaterako etxebizitza berrien gain-eskaintza (inbentarioen araberako maila egokienetik hurbil dago jada) edo zerga-finkatzea (defizit helburua bete izana eta Euskadiren zorpetze maila baxuagoa medio). Azkenik, lan merkatuaren bilakaera apur bat eraginkorragoa gertatzen hasi da, soldaten mugatzeak bideak zabaltu baititu, beharrezko lehiakortasun irabaziak erraztu eta nazioartekotze prozesuarekin jarraitzeko, lanpostuak mantentzearekin batera.

Epe luze eta erdian, hazkundearen joera finkatzen duten zenbait faktoreen zuzkidura, Espainiako gainerako autonomia-erkidegoek batez beste dutenaren hagitz gainetik dago, eta horixe islatzen da I+Dn egindako ahalegina (ikusi 27. grafikoa), giza kapitalaren zuzkidura edo produktibitatea aztertzean. Aldi berean, erdi- eta goi-teknologiako ondasunetan espezializatuagoa izatea (ikusi 28. grafikoa) eta kanpora nabarmen irekia izatea ere susperraldiaren alde jokatu duten ezaugarriak dira. Finean, teknologiaren sektorea lan-merkatua babesteko faktore bat da, krisialdietan lan-merkatuan langabezia-tasa txikiagoa izan dadin laguntzen baitu; eta giza kapitalean egindako ahalegina ere oinarritzkoa da goi-teknologiako sektoreetan enplegua izateko. Aurrera begira, ezinbestekoa da lehiakortasunean etengabeko irabaziak bermatuko dituzten erreformetan aurrera egitea, giza kapitala hobetuz, administrazio-kostuak murriztuz, energiaren prezioa murriztuz eta funtzionamendu eraginkor eta lehiakorragoa bultzatuz lan-merkatuan nahiz ondasun eta zerbitzuen merkatuetan. Erreforma hauen nondik norakoak baldintzatuko du euskal ekonomiaren suspertze abiadura.

27. Grafikoa


Ikerketa eta garapena, eta biztanleko BPG



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

28. Grafikoa


Euskadiko esportazioen banaketa produktuen eduki teknologikoaren arabera (%)



Iturria: BBVA Research, Datacomexen oinarrituta

29. Grafikoa


2007an teknologia altuan edo ertain-altuan enpleguak vs. 2007tik 2011ra langabeziatasun izandako aldaketa



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

30. Grafikoa

Giza kapitala vs. teknologia altuan eta ertainaltuan enpleguak



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

4. Koadroa

Espania: BPGren hazkunde erreala Erkidego Autonomoka

	2011	2012	2013	2014
Andaluzia	0,0	-1,7	-1,6	1,1
Aragoi	0,3	-1,5	-1,1	1,3
Asturias	-0,1	-2,5	-1,1	1,0
Balearrak	1,6	-0,3	-0,2	1,4
Kanariak	1,7	-1,0	-0,7	1,0
Kantabria	0,5	-1,3	-0,9	1,1
Gaztela eta Leon	1,1	-1,8	-0,7	1,4
Gaztela-Mantxa	-0,4	-3,0	-1,6	0,8
Katalunia	0,6	-1,0	-1,2	1,2
Extremadura	-0,9	-2,2	-0,9	1,0
Galizia	-0,1	-0,9	-0,8	1,2
Madril	0,6	-1,3	-0,6	1,4
Murtzia	0,0	-1,7	-1,7	0,8
Nafarroa	1,4	-1,8	-1,2	1,1
Euskadi	0,8	-1,4	-0,7	1,2
Errioxa	0,9	-2,1	-0,7	1,2
Valentziako Erkidegoa	-0,2	-1,5	-1,8	0,7
Espania	0,4	-1,4	-1,1	1,1

Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta.

1. Errekoadroa. Jarduera ekonomikoari buruzko BBVAren inkestak. Epe laburrera hobetzeko perspektibarik ez

BBVAren bulego-sareari zuzendutako jarduera ekonomikoari buruzko inkestak hamargarren hiruhiakoa bete du Euskadin, 2013ko lehen hiruhiakoa dagokionarekin. Aldi horretan, inkestak BPGren antzeko bilakaera erakutsi du, eta, hala, emaitzak hobexekoak izan ziren 2010. eta 2011. urteen bukaeran, baina negatiboak 2011. urte bukaeratik aurrera eta 2012. urtean.


Negatibotasun horren barnean, hala ere, 2013ko lehen hiruhiakoko emaitzek hobera egin dute apur bat, eta hobekuntza hori bat dator egoeraren datuekin, datu horiek ere aurreko bi hiruhiakotan baino moteltze txikiagoa erakusten baitute ekonomian. Ikuspegi baikorrako hori erakusten dute egoera ekonomikoaren beherakada eten egin dela eta aurrera begira ere egonkor jarraituko duela uste dutenek (inkestari erantzun dioten % 57), gutxiago baitira egoera ekonomikoak beherantz jarraitzen duela

edo beheraldia areagotu egingo dela uste dutenak. Hala, hiruhiakoa honetako datuen arabera, atzeraldi giroa da nagusi oraindik ere: soilik inkestari erantzun dioten % 1ek uste du egoerak hobera egin zuela 2013ko lehen hiruhiakoan, eta soilik % 6k uste du 2013ko bigarren hiruhiakoan egoera hobetu egingo dela.

Dena den, 2010eko hirugarren hiruhiakotik izandako emaitzarik positiboak dira honako hauek, eta urteko lehen hiruhiakoa batean jasotako emaitza onena da Euskadiko bulego-sarean inkestak hasi zirenetik, 2010eko bigarren hiruhiakotik, hain zuzen. Hobekuntza erlatibo hori honela interpreta daiteke: inkestari erantzun diotenek jarduera ekonomikoaren beherakada moteltzen ari dela aurreikusten dute.

31. Grafikoa

Euskadi: jarduera ekonomikoa eta aurreikuspenak



Iturria: BBVA

Beheraldi txikiagoa adierazten duen espektatiba hau eskari-zorroari buruzko pertzepzioaren hobekuntza txikian ere islatzen da, bai eta inbertsioari buruzko ikuspegi ez hain negatiboan ere; azken hori industriaren eta zerbitzuen sektoreei lotzen zaie nagusiki, eta ez eraikuntzaren sektoreari. Hala ere, egoeraren ahultasunaren erakusgarri nagusiak enplegu-adierazleak dira: inkestari erantzun dioten bi herenek uste dute, oraindik ere, industria, zerbitzu eta eraikuntza sektoreetan lanpostuak galduko direla. Horrezaz gain, industria-ekoizpenari buruzko iritzia ere negatiboa da, aurreikuspenen arabera, Industria Ekoizpenaren Indizeak erakutsi ildoan.

Erantzun positiboak jaso dituen adierazle bakarra (hobekuntza gertatzen dela eta okertzea gertatzen dela irizten dioten % 57) esportazioei dagokiena da eta, duela urtebeteko egoerarekin alderatuta

ere, hobekuntza nabari da. Baina esparru horretan ere, ezaugarri nagusia gelditasuna da: inkestari erantzun dioten % 71k uste du egonkor jarraitzen dutela.

Inkestak, beraz, egungo eszenatokian oraindik ere nagusi den ziurgabetasuna islatzen du, eta emaitzak aurreko hiruhiakotakoak bezain negatiboak ez izateko arrazoiak esportazioen egonkortasunean oinarritzen dira. Lan-merkatuan zalantzak nagusitzen dira oraindik, baina aurreikuspenen bilakaera, aurrera begira, ez da horren negatiboa.

Hori guztia bat dator argitalpen honetan 2013. urterako deskribatzen den egoerarekin.


Grupo BBVAren
Ikerketa Zerbitzua

5. Koadroa
Jardun Ekonomikoari buruzko laburpen taula

Euskadi (erantzunen %koa) mar.13	2013ko 1. hiruhilekoan			2012ko 4. hiruhilekoan			2012ko 1. hiruhilekoan		
	Handitu	Egonkor	Txikitu	Handitu	Egonkor	Txikitu	Handitu	Egonkor	Txikitu
Jarduera ekonomikoa	1	57	42	2	46	51	1	32	67
Hurrengo hiruhilekorako aurreikuspena	6	56	38	2	48	51	4	29	67
Industria-ekoizpena	2	59	39	1	53	45	1	39	60
Eskari zorroa	9	56	36	2	50	48	1	26	72
Stock maila	5	61	34	3	66	31	4	54	42
Lehen sektoreko inbertsioa	7	69	23	3	70	27	1	65	34
Industriako inbertsioa	5	59	36	1	57	42	1	51	48
Zerbitzuetako inbertsioa	3	50	47	2	43	55	3	32	65
Eraikuntza berriak	4	25	71	5	26	70	2	21	77
Industriako enplegua	0	28	72	1	34	65	0	33	66
Zerbitzuetako enplegua	2	38	60	1	37	63	3	29	69
Eraikuntzako enplegua	4	30	66	1	32	67	1	24	75
Prezioak	18	66	17	33	56	10	25	59	16
Salmentak	0	46	53	4	33	63	0	27	73
Turismoa	13	60	27	8	73	20	10	59	30
Esportazioak	22	71	7	17	62	21	9	61	30

(*) Muturreko erantzunen saldo edo alde garbia
Iturria: BBVA Research

32. Grafikoa
Inbertsioa sektore ekonomikoka. Erantzunen saldoa.



Iturria: BBVA

4. Autonomia-erkidegoen finantzak, boom garaian eta krisi garaian (2003-12)¹

Sarrera

Idazki honetan, eskualdeetako finantzek azken hamarkadan izan duten bilakaera aztertuko dugu, kontuan hartuta hamarkada horretan aurreko hedapenari zegokion puntu gorena eta oraindik barru-barruan gauzkan krisia sartzen direla. Autonomia-erkidegoen finantzei buruzko egungo eztabaida ikuspegi egokitik aztertzen lagunduko digu ariketa honek. Eztabaida horretan, azken ekitaldietako murrizketen gogortasuna azpimarratu ohi da, aurreko urteetan gastuetan izan den eztanda ausartegia ahaztuz. Garai hori bere osotasunean hartzen denean, aurrekontuen kontsolidazio-prozesua, 2010. urtean hasi zena, aurreko urteetako gehiegikerien beranduko zuzenketa partzial gisa agertzen da. Murrizketak murrizketa, gastuaren gaur egungo mailek nahikoa izan behar lukete autonomia-erkidegoen oinarritzko zerbitzuetan estandar onargarriei eusteko.

Honako lan honetan erabili den informazioa autonomia-erkidegoetako aurrekontuen urteroko likidazioetatik hartu dugu batik bat, Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioak (MHAP, 2013a) argitaratzen duen dokumentutik, bai eta iturri horrek berak aurrekontuen betetzeari buruz emandako datuetatik ere (MHAP, 2013b). Aurrekontuetako diru-sarrera eta gastuen datuetan, zenbait doikuntza egin dira, berorien behin-behineko profiletan sortutako distortsioak zuzentzeko; izan ere, zenbait sail kontabilizatzeko moduak distortsioak ekarri ditu, eta hor sartzen dira, adibidez, autonomia-erkidegoei egin zaizkien zenbait atxikipen, 2008 eta 2009. urteetako eskualdeen finantziario-sistemetak likidazioen saldo negatiboen itzulketa gisa egindakoak, eta ekitaldi bakoitzean kontabilizatu gabeko ordaindu faktura ordaindugabeak². Eskualdeko diru-sarreraren datu sorta bat ere eraiki da, sortzapen-irizpide bat oinarri hartuta. Aurrekontuetako edo kutxa bidezko diru-sarreraren sortaren eta sortutako diru-sarreraren sortaren arteko aldea zera da: lehenengoan, ekitaldian egiaz jaso diren diru-sarrerak kontabilizatzen dira, hau da, indarreko ekitaldi horretan kontura egindako sarreraren batura, gehi bertan ordaindutako edo jasotako finantziario-sistemaren likidazioak (normalean, bi urte lehenagokoak izaten dira); bigarrenengoan, aldiz, urteari dagozkion diru-sarrerak hartzen dira kontuan, berorren likidazioa ere barnean hartuta (egiaz beste ekitaldi batean ordaindu arren).

Autonomia-erkidegoek oro har izan duten bilakaera


33. eta 34. grafikoek 2003tik 2012ra Espainiako autonomia-erkidegoek guztira izan dituzten diru-sarrera eta gastu ez-finantzarioen bilakaera laburtzen dute. 33. Grafikoan, bai diru-sarrerak eta bai gastuak eskualdeen osoko BPGren ehunekotan adierazi dira, eta hasierako balioaren arabera (2003koa) normalizatu dira, balio hori 100 zenbakiarekin berdinduz. 34. Grafikoa, berriz, gastuei dagokie, eta biztanleko eta 2008ko prezio konstanteen arabera neurtu dira.

1: Angel de la Fuente. Análisis Económico del Instituto (CSIC). 2013ko apirila

2: Xehetasun gehiago jakiteko, ikusi honako oharkizun honen oinarri den laneko dokumentuaren bertsioa: de la Fuente (2013), helbide honetan http://www.bbva-research.com/KETD/fbin/mult/WP_1316_tcm346-383117.pdf?ts=1842013

33. Grafikoa


Gastu eta diru-sarrera ez-finantzarioak, BPGren ehunekotan. 2003 = 100. Autonomia-erkidegoak batera hartuta



Iturria: A. de la Fuente

34. Grafikoa


Gastua biztanleko, 2008ko prezio konstanteetan. 2003 = 100



Iturria: A. de la Fuente

35. Grafikoa

Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa BPGren ehunekotan. Autonomia-erkidegoak batera hartuta



Iturria: A. de la Fuente

Azkenik, 35. Grafikoak aurrekontuen defizitak izan duen bilakaera erakusten du, kutxa-irizpideekin eta sortzapen-irizpideekin kalkulaturik.

Ondo bereizitako hiru fase dituen jokabide-eredu bat erakusten dute grafikoeak, eta autonomia-erkidego gehienetan islatzen da hori, maila desberdinetan bada ere. 2003tik 2007ra, autonomia-erkidegoen diru-sarrerak eta gastuak oso antzeko erritmoetan hazi dira. 2007tik 2009ra, gastuak gora egiten dute bat-batean, eta, aldi berean, diru-sarrerak beherantz doaz bizkor sortzapenen arloan, baina kutxari dagokionez gora jarraitzen dute (oso ikuspegi baikorretik kalkulaturiko konturako diru banaketei esker). Azkenik, 2009tik 2012ra, bai kutxako diru-sarrerak eta bai gastuak erritmo bizian murrizten dira, eta, lehenengoetan, halako egonkortze bat nabari da aztergai hartu dugun garaia azken urtean.

Eskualde guztiak batera hartuta, gastuak eta diru-sarrerak (BPGren frakzio gisa neurtuta) hamar puntu egiten dute gora ehunekotan, lehen fase horretan. Bigarrenean, gastuak 20 puntu baino gehiago egiten du gora bi urtetan (oso ahul bada ere, izendatzailearen geldialdiak lagunduta, % 0,5 egiten baitu behera 2007tik 2009ra); diru sarreraren sortzapena 14 puntu jaisten da eta, beraz, defizit nabarmena zabaltzen da: sortzapenen atalean, diru-sarrera ez-finantzarioen erdia adinakoa. Kutxa irizpide hartuta, txikiagoa da desoreka, baina handitu egiten da 2010tik 2011ra,

gastuak behera egin arren, eta 2012an baino ez da murrizten hasiko, diru-sarrerak egonkortsu eta gastuek beherako joeran jarraitzean (ikusi 35. Grafikoa). Aldi honen amaieran, diru-sarrerak beren hasierako balioaren azpitik kokatzen dira (BPGren % 0,36 puntutan), eta gastuek erreferentzia horren 1,30 puntu gainera jarraitzen dute. Garai horretan sortutako desorekaren % 20 (defizitean BPGren % 1,66ko gehikuntza) diru sarreretan hasierako mailarekiko izandako galerak azaltzen du eta, neurri handiagoan (% 80an), gastuaren gehikuntzak.


Hamarkadan metatu diren defizitak esanguratsuak dira. Aurrekontu-diru sarrerak edo kutxakoak hartuta, autonomia-erkidegoek 2003tik 2012ra metatutako defizita 88,4 miliar eurokoa izan zen, eta, Estatuaren aldeko saldoetako 24,3 miliar euro erantsi behar zaizkio zenbateko horri, hamar urteko epean pixkana ordainduko dena, eskualdeen finantziario sistemako 2008 eta 2009ko likidazioei dagokienez. Guztira, beraz, 112,7 miliar, 2012ko BPGren % 10,6, alegia; edota autonomia-erkidegoen urte horretako diru-sarrera ez-finantzarioen % 89.

Azken urteetan autonomia-erkidegoen gastua nabarmen murriztu bada ere, hasierako mailatik gora eusten diola nabarmendu behar da, bai BPGren gainera ratioan eta bai biztanleko gastuan, baita eskualdeen zorraren interesak kanpoan uzten direnean ere. Autonomia-erkidego batetik bestera gauzak aldatu arren, batez beste, eskualdeetako gobernuek izandako gastu mailak nahikoa izan behar luke 2003an edo 2004an ematen ziren zerbitzuen kalitateari eusteko. Gerta daiteke kasuren batzuetan zenbait sakrifizio desatsegin egin behar izatea, baina hori ez dator bat inolaz ere eskualdeen gastuan egin berri diren murrizketek nahitaez Ongizate Estatuaren desegitea ekarriko dutela diotenen ikuspegi katastrofistarekin.

Eskualdeen arteko aldeak


36. eta 37. Grafikoa aztergai dugun garaian autonomia-erkidegoek banan-banan izan dituzten diru-sarreraren eta gastuen bilakaera erakusten du. Erkidegoen artean alde nabarmenak badaude ere, gehienetan antzeko joera ikusten da, lehen azaldu dugunez: 2009an, goia jo zuten diru-sarreretan eta gastuetan, eta azken aldian beherakadak bietan; 2003. urteko datuekin alderatuta, erkidego gehienek diru-sarreraren beherakada garbiak eta gastuen gorakadak izan dituztela erakusten du horrek.

36. Grafikoa
Gastu ez-finantzarioak,
BPGren ehunekotan. 2003 = 100



Iturria: A. de la Fuente


37. Grafikoa
Diru-sarrera ez-finantzarioak, BPGren
ehunekotan. 2003 = 100



Iturria: A. de la Fuente

Aztergai dugun epean autonomia-erkidegoek izan duten finantza-jardueraren adierazle bat erakusten du 38. Grafikoa. Adierazle hori eraikitzeke, hamarkada horretako urteetan eskualde bakoitzak izan dituen aurrekontu-defizitak batzen dira, eta 2008ko eta 2009ko likidazioen saldo zordunak ere sartzen dira hor, euro korrontetan, betiere. Azkenik, horrela lortutako guztizko zenbateko hori autonomia-erkidego bakoitzak 2012an izandako diru-sarrera ez-finantzarioez zatitzen da. Nahiago izan dut izendatzaile gisa BPGren ordez autonomia-erkidegoen diru-sarrerak erabili, metatutako zorra itzultzeak administrazio bakoitzari zer ahalegin finantzario eginaraziko dion hobeto erakusten digulako horrek.

38. Grafikoa
2003tik 2012ra metatutako zorra, 2008 eta 2009ko likidazioen saldo negatiboak barne hartuta, 2012ko diru-sarrera ez-finantzarioen ehunekotan



Iturria: A. de la Fuente

Adierazle horrek erakusten duenez, hamarkadan finantza-jarduera okerrera izan duena Gaztela-Mantxa izan da; eta, ondoren, Balearrak, Valentzia, Katalunia eta Murtzia datoz. Bestaldeko muturrean, Madril, Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Galizia eta Asturias daude.

6. Koadroa
Gaur egungo finantza-egoeraren adierazlea eta berorren osagaiak

	[1] 2003ko aurrekon. saldoa /BPG	+ [2] diru-sar. bariantz./BPG 2003tik 12ra	- [3] gastuaren bariantz./BPG 2003tik 12ra	= [4] 2012ko aurrekon. saldoa /BPG	[5] 2012ko aurrekon. saldoa/ diru-sar.	- [6] atxikipenak/ diru-sar.	= [7] 2012ko saldo doitu/ diru-sar.
Andaluzia	% 0,42	% -0,80	% 1,44	% -1,82	% -12,2	% 2,76	% -14,92
Aragoi	% -0,09	% -0,24	% 0,96	% -1,29	% -11,4	% 2,27	% -13,64
Asturias	% 0,41	% -0,96	% 0,19	% -0,74	% -4,8	% 2,13	% -6,97
Balearrak	% -0,09	% -0,85	% 1,16	% -2,10	% -21,4	% 1,17	% -22,54
Kanariak	% 0,03	% -0,44	% 0,55	% -0,95	% -6,9	% 2,41	% -9,32
Kantabria	% 0,53	% -1,79	% -0,27	% -0,98	% -6,7	% 2,46	% -9,19
Gazt. eta Leon	% 0,05	% -1,55	% -0,53	% -0,96	% -7,2	% 2,43	% -9,59
Gazt. Mantxa	% 0,04	% 0,01	% 2,80	% -2,75	% -17,8	% 2,23	% -20,03
Katalunia	% 0,21	% 0,37	% 2,49	% -1,92	% -18,7	% 1,49	% -20,19
Valentzia	% -0,55	% -0,34	% 2,60	% -3,49	% -32,0	% 2,03	% -34,05
Extremadura	% 0,53	% -1,78	% 0,20	% -1,45	% -6,9	% 2,74	% -9,60
Galizia	% 0,08	% -2,30	% -1,36	% -0,86	% -6,1	% 2,57	% -8,63
Madril	% 0,17	% 0,15	% 0,62	% -0,30	% -3,6	% 0,84	% -4,39
Murtzia	% 0,04	% -0,09	% 2,87	% -2,92	% -22,7	% 2,02	% -24,76
Nafarroa	% 0,01	% -2,27	% -0,68	% -1,58	% -9,0	% 0,00	% -9,00
EAE	% 0,12	% 1,03	% 2,29	% -1,14	% -8,2	% 0,00	% -8,19
Errioxa	% -0,40	% 0,08	% 0,53	% -0,86	% -6,8	% 2,40	% -9,18
Guztira	% 0,11	% -0,36	% 1,30	% -1,55	% -12,8	% 1,82	% -14,63


Iturria: A. de la Fuente

6. Koadroan, autonomia-erkidegoen egungo finantza-egoeraren adierazlea eraiki da, eta zenbait osagitan berezita erakusten da, gaur egungo desoreken jatorria errazago uler dezagun. Epearen amaieran (2012) autonomia-erkidego bakoitzak zuen aurrekontu-saldoa, BPGren frakzio

gisa neurtuta ageri dena ([4] zutabea), hiru gairen batuketa aljebraiko gisa adieraz daiteke; hauek lirateke gai horiek, hurrenez hurren: epe hasierako aurrekontu-saldoa ([1] zutabea) beronen aldaketan erkidegoetako diru sarrerek ([2] zutabea) eta gastuek ([3] zutabea) eragin aldaketa. ([2] zutabea). Autonomia-erkidego bakoitzak 2012an zuen aurrekontu-saldoa [5] zutabearen adieraz da, urte horretako diru-sarrera ez-finantzarioen frakzio gisa, eta ez BPGren frakzio gisa. Azkenik, Estatuak finantziario-sistemaren konturako diru emaitzen gaian egindako atxikipenak erantsi zaizkio aldagai horri (2008 eta 2009ko likidazio saldoaren itzulketa partzial gisa, modu berean normalizatuta), bide horretatik normalizatuz. Horrela, autonomia-erkidegoek izan duten gastuaren eta diru-sarrera ez-finantzarioen arteko arrakala neurtzen duen adierazlea lortu dugu [6] zutabearen, adierazitako atxikipen horiek egin ondoren; hau da, aurrekontuetan oreka berreskuratzeko gaur egun nahitaez egin beharreko doikuntzaren intentsitatea duen adierazlea da.

39. Grafikoa

Gaur egungo egoeraren adierazlea. 2008 eta 2009ko likidazioen itzulketen ondorengo aurrekontu-saldoa, itzulketen aurretiko diru-sarrera ez-finantzario arruntetako ehunekotan




Iturria: A. de la Fuente

Gaur egungo finantza-egoeraren adierazleari lotuta eskualdeen artean egin daitezkeen sailkapena (ikusi 39. Grafikoa) aztertutako epeko batez besteko jardunari dagokionaren oso antzekoa da, baina ez da berdina. Adibidez, Gaztela-Mantxak nabarmen zuzendu du bere defizita azken urtean, eta Balearrek epe horren azken zatian beren jarduna hobetu egin dute; horregatik, bi eskualdeek hobera egin dute, sailkapena egungo finantza egoeraren arabera egitean, epealdiko batez besteko jardunaren arabera egin ordez. Bestaldeko muturrean, Nafarroaren posizio finantzarioak okerrera egin du nabarmen azken urteotan, eta Asturiaskoa, berriz, hobetu egin da azken ekitaldian. Sailkapenaren mutur batean, defizit doitutak beren diru-sarrera ez-finantzarioen % 20tik gorakoak dituzten bost eskualde daude. Sailkapenaren beste muturrean, defizit doitutak diru-sarreraren % 10az azpitik kokatzen dira nasaiki.

40. Grafikoa

2003tik 20012ra diru-sarrerek eta gastuek izan duten aldaketa, eskualdeko BPGren ehunekoetan



Iturria: A. de la Fuente


40. Grafikoa 2003tik 2009ra bitartean metatutako desorekari diru-sarrerek eta gastuek egindako ekarpena nabarmentzen du. Garai horretan bi sailek izandako aldaketak erakusten dira, BPGrekiko puntutan neurtuta, eta berauok sortu defizitaren gehikuntzaren arabera ordenatu dira eskualdeak. Interesgarria da ikustea gastuaren hazkunde azkarrak funtsezko tokia betetzen duela aztergai dugun garaiko defizitean hazkunderik handiena duten bost eskualdeetan. Talde horretan, diru-sarreraren galerak magnitude horri egindako ekarpena mutur hauen bitartean dago: % -17 Katalunian (diru-sarrerak hazi egin dira), eta % 36 Andaluzian. Hala ere, eskualdeen bigarren taldean, aurrekontu-saldoaren gainbeherarako faktore nagusia diru-sarreraren beherakada nabarmena da; Balearrak, Extremadura, Nafarroa eta Kantabria daude multzo horretan, eta faktore horrek azaltzen du defizitaren gehikuntzaren ehuneko handi bat, % 42tik % 143ra, hain zuzen. Azkenik, sailkapenaren beste muturrean, gastuen joera erabakigarria izan da berriro ere; arlo horretan, gastuei eusteak aukera eman du defizitaren gehikuntza neurritsurako, diru-sarrerak geldoak izan arren; gainera, modu esanguratsuan murriztu da Galizian, Gaztela eta Leonen eta Asturiasen kasuan.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua

41. eta 42. grafikoei Euskal Autonomia Erkidegoko diru-sarreraren eta gastuen bilakaera eta autonomia-erkidegoek guztira izan dutena laburtzen dute. Bi magnitude horien profilen artean alde esanguratsuak daudela nabarmendu behar da, eta horrek zerikusi handia du ziurrenik EAEren foru-erregimen finantzarioarekin eta gaur egungo krisi garaian nahiko ondo jardun izanarekin.

41. Grafikoa


Gastu eta diru-sarrera ez-finantzarioak
BPGren ehunekotan. 2003 = 100.
EAE eta autonomia-erkidegoak osotara



Iturria: A. de la Fuente

42. Grafikoa

Biztanleko gastu erreala,
interesak kenduta. 2003 = 100



Iturria: A. de la Fuente

Erregimen komuna duten eskualdeetan ez bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan krisia hastearekin bat dator diru-sarreraren gainbehera, kasu honetan ez baitago konturako diru emaitza edo entregen sistemarik; izan ere, 2008tik 2009ra, autonomia-erkidego gehienek diru-sarrerei nahiko maila altuan eutsi zitzaizkien bide horretatik, artifizialki bada ere. Bestalde, 2009tik aurrera, halako suspertze esanguratsu bati ekin zitzaion, eta, horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoak diru-sarrera handiagoekin amaitu zuen epea, 2003an baino zortzi puntu gehiagorekin. Gastuei dagokienez, euskal eredua Estatuko batez bestekoaren desberdina da. BPGrekiko, gastuaren pisuari nahiko egonkor eutsi zitzaion, eta hedapen garaian pixka bat jaitzi ere egin zen, krisia hasi eta berehala gora egin aurretik; dena den, kasu horretan ere Estatuko goren mailatik behera eutsi zitzaion. 2009az geroztik, dena den, gastuen murrizketa Estatukoa baino askoz motelagoa izan da, baina, hala ere, hori ez da eragozpen izan defizita nahiko bizkor zuzentzeko, diru-sarreraren bilakaera positiboari esker. Biztanleko gastu errealarik dagokienez, % 36 hazi da 2003tik 2009ra, eta epearen azken aldera zortzi puntu baino ez da murriztu; doikuntza, beraz, beste autonomia-erkidego batzuetan ikusitakoa baino askoz leunagoa izan da.

Erreferentziak

de la Fuente, A. (2013). "Las finanzas autonómicas en boom y en crisis." Mimeo, Análisi Ekonomikoko Institutua (CSIC), Bartzelona.

Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioa (MHAP, 2013a). Liquidación de los presupuestos de las comunidades autónomas. Autonomia-erkidegoko eta tokiko Koordinaziorako Idazkaritza Nagusia, Madril. <http://serviciosweb.meh.es/apps/publicacionliquidacion/aspx/menuinicio.aspx>.

Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioa (MHAP, 2013b). Consulta de información de ejecución presupuestaria de las comunidades autónomas. Autonomia-erkidegoko eta tokiko Koordinaziorako Idazkaritza Nagusia, Madril. <https://serviciotelematicos.minhap.gob.es/cimcanet/consulta.aspx>.

5. Taulak

7. Koadroa
Euskadiko ekonomiaren koiuntura adierazle nagusiak

	2012		Batazbesteko hazkundera urte haseratik (u/u)		Azken datua (h/h, uez)		Azken hilabetea
	Euskadi	Espainia	Euskadi	Espainia	Euskadi	Espainia	
%							
Txikizkako salmentak	-6,3%	-7,0%	-10,0%	-9,7%	-1,7%	-0,8%	ots.13
Matrikulazioak	-21,6%	-14,4%	-26,7%	-6,4%	12,0%	-0,7%	mar.13
ZSJI (IASS)	-4,8%	-5,9%	-5,8%	-6,2%	-2,9%	-0,7%	ots.13
Bidaieri egoiliarrak (1)	-2,5%	-6,1%	-4,2%	-4,5%	6,5%	4,1%	mar.13
Egoiliarren ostatu-gauak (1)	-3,1%	-8,4%	-2,3%	-4,2%	4,4%	2,3%	mar.13
IPI	-7,8%	-5,9%	-8,4%	-6,0%	0,5%	-0,5%	ots.13
Etxebizitza bisatuak	-40,2%	-43,6%	3,2%	-31,4%	242,8%	-2,6%	urt.13
Esportazio Errealak (2)	-1,4%	1,3%	-0,9%	5,1%	-4,6%	1,3%	ots.13
Inportazioak	-10,4%	-3,7%	7,8%	-2,4%	0,4%	-5,2%	ots.13
Bidaieri Atzerritarrak (3)	7,4%	1,4%	11,6%	0,7%	14,2%	2,4%	mar.13
Atzerritarren Ostatu-gauak (3)	6,2%	2,2%	13,1%	1,6%	11,2%	0,6%	mar.13
Afiliazioa SSn	-2,6%	-3,4%	-3,9%	-4,3%	-0,3%	-0,6%	mar.13
Langabezia Erregistratua	11,9%	10,9%	11,6%	7,1%	0,2%	-0,3%	mar.13

(1) Espainiako Egoiliarrak (2) Ondasun esportazioak (3) Espainiako egoiliarrak ez direnak
Iturria: BBVA Research eta Espainiako ministeritzetan (SOIM, EOM eta ITMM) oinarrituta

8. Koadroa
EDB: aurreikuspen makroekonomikoak (Urteko bariazio-tasak %-tan, kontrakorik adierazi ezean)

	2010	2011	2012	2013	2014
BPG erreala	2,0	1,5	-0,5	0,3	1,3
Kontsumo pribatua	0,9	0,1	-1,3	-0,3	0,9
Kontsumo publikoa	0,7	-0,1	-0,3	-0,5	0,2
Kapital finkoaren eraketa gordina	-0,3	1,6	-3,9	-1,3	3,3
Eraikuntza	-4,4	-0,3	-3,1	-1,5	2,0
Izakinen aldaketa (hazkunderako ekarpena)	0,6	0,2	-0,6	0,0	0,0
Barne-eskaria (hazkunderari egindako ekarpena)	1,2	0,5	-2,2	-0,5	1,1
Esportazioak	11,0	6,5	2,9	3,3	3,8
Inportazioak	9,5	4,3	-0,8	1,8	3,8
Kanpo-eskaria (hazkunderari egindako ekarpena)	0,7	1,0	1,6	0,8	0,2
Pro-memoria					
BPG, etxebizitza arloko inbertsiorik gabe	2,2	1,5	-0,4	0,3	1,3
BPG, eraikuntza gabe	2,8	1,7	-0,1	0,4	1,3
Enplegua guztira (BAI/EPA)	-0,5	0,5	-0,7	-0,5	0,4
Langabezia-tasa (bizt. akt. %)	10,1	10,2	11,4	11,8	11,4
Kontu korrante saldoa (BPGren %)	0,0	0,1	1,1	1,3	1,4
Herri-administrazioen saldoa (BPGren %)	-6,2	-4,1	-3,0	-2,3	-1,8
KPI (aldiaren batez bestekoa)	1,6	2,7	2,5	1,6	1,5

Aurreikuspenen itxiera-data: 2013ko otsailak 8
Iturria: erakunde ofizialak eta BBVA Research

9. Koadroa

Aurreikuspen makroekonomikoak: Barne Produktu Gordina

(Urteko tasak, %)	2010	2011	2012	2013	2014
Estatu Batuak	2,4	1,8	2,2	1,8	2,3
EDB	2,0	1,5	-0,5	0,3	1,3
Alemania	4,0	3,1	0,9	1,0	2,0
Frantzia	1,6	1,7	0,0	0,4	1,5
Italia	1,8	0,6	-2,4	-0,7	0,9
Espainia	-0,3	0,4	-1,3	-1,1	1,1
Erresuma Batua	1,8	0,9	0,3	1,0	1,9
Latinoamerika*	6,2	4,3	2,8	3,5	3,7
Mexiko	5,4	3,9	3,9	3,1	3,1
Brasil	7,6	2,7	0,9	3,6	4,0
EAGLES **	8,4	6,6	5,1	5,8	6,1
Turkia	9,5	8,5	2,2	4,4	5,5
Asia Ozeano Barea	8,2	5,7	5,2	5,6	5,8
Txina	10,5	9,3	7,8	8,0	8,0
Asia (Txina gabe)	6,7	3,4	3,6	4,0	4,4
Mundua	5,1	3,9	3,2	3,6	4,1

* Argentina, Brasil, Txile, Kolonbia, Mexiko, Peru, Venezuela

** Brasil, Korea, Txina, India, Indonesia, Mexiko, Errusia, Taiwan, Turkia

Aurreikuspenen itxiera-data: 2013ko otsailak 8

Iturria: BBVA Research

10. Koadroa

Finantza aldagaiak

Interes-tasak 10 urtera (batez bestekoa)	2010	2011	2012	2013	2014
Estatu Batuak	0,25	0,25	0,25	0,25	0,25
EDB	1,00	1,00	0,75	0,75	1,25
Txina	5,81	6,56	5,75	6,00	6,00

Interes-tasak 10 urtera (batez bestekoa)

Estatu Batuak	3,2	2,8	1,8	2,0	2,6
EDB	2,8	2,6	1,6	2,0	2,9

Ganbio-tasa (batez bestekoa) Dolarrak (\$) moneta nazionaleko

Estatu Batuak (EUR USDko)	0,76	0,72	0,78	0,77	0,75
EDB	1,33	1,39	1,29	1,31	1,34
Erresuma Batua	1,55	1,60	1,59	1,52	1,53
Txina (RMB USDko)	6,77	6,46	6,31	6,16	6,02

Aurreikuspenen itxiera-data: 2013ko otsailak 11

Iturria: BBVA Research

LEGE-OHARRA

Dokumentu hau nahiz bertako datu, iritzi, estimazio, aurreikuspen eta gomendioak Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A.k (aurrerantzean "BBVA") egin ditu, bezeroei argitaratze-datako informazio orokorra emateko asmoz, eta aurretiko oharpenik gabe alda daitezke. BBVAk ez du inolako konpromisorik hartzen, ez aldaketa horien berri emateko, ezta dokumentu hau eguneratzeko ere.

Ez dokumentu hau, ez jasotzen duen edukia, ez dira inolaz ere eskaintza, gomendio edo erosketa-eskaera, ez eta inolako balore edo finantza-tresna harpidetzeko edo inbertsioak egin nahiz desegiteko bide ere, eta ezin dute ezoin kontratu, konpromiso edo erabakiren oinarri izan.

Dokumentu hau eskura duten duen inbertsiogileak argi izan behar du bertan aipatzen diren balore, finantza-tresna edota inbertsioak desegokiak izan daitezkeela dituen inbertsio-helburu espezifikoetarako, duen finantza-egoerarako edo arrisku-profilerako, ez baitira kontuan hartu dokumentu hau prestatzerakoan; horren ondorioz, nor bere inbertsio-erabakiak hartu behar ditu, inguruabarrak kontuan izanda eta beharrezko lukeen aholkularitza zehatz eta espezializatua lortuta. Dokumentu honen edukia publikoki eskuragarri dauden informazioetan oinarritzen dira, eta fidagarritzat jotzen diren iturrietatik lortu dira; baina informaziook ez ditu BBVAk modu independentean egiaztatu, eta, hortaz, ez du inolako berme berariazko edo inpliziturik ematen berorien zehaztasun, osotasun edo zuzentasunaz. BBVAk ez du bere gain hartzen dokumentu hau edo berorren edukia erabiliz zuzenean edo zeharka gerta litekeen galerarik. Inbertsiogileak gogoan izan behar du balore eta finantza-tresnen iraganeko bilakaerak edo inbertsioen emaitza historikoez ez dutela bermatzen etorkizuneko bilakaerarik edo emaitzarik.

Balore eta finantza-tresnen prezioak edo inbertsioen emaitzak gorabeherak izan ditzake inbertsiogileen interesen aurka, hasierako inbertsioa galtzeraino. Geroko transakzioekin, aukerekin eta baloreekin edo errentagarritasun handiko finantza-tresnekin (high yield securities) egindako eragiketek arrisku handiak sor ditzakete, eta ez dira egokiak inbertsiogile guztientzat. Izan ere, zenbait inbertsiotan, galerak hasierako inbertsioa bera baino handiagoak izan daitezke, eta kasu horietan beharrezkoa da ekarpen gehigarriak egitea galera guztien estaltzeko. Horregatik, tresna horiekin eragiketarik egin aurretik, inbertsiogileek horien nondik norakoen jakitun izan behar dute, dagozkien funtzionamendu, eskubide, betebeharrak eta arriskuak zein horien azpiko baloreak kontuan hartuta. Gerta liteke bigarren mailako merkaturik ez izatea tresna horientzat.

BBVAk edo Grupo BBVA taldeko edozein erakundek nahiz horietako zuzendari edo langileek partaidetzaren bat izan dezakete dokumentuan aipatutako balore edo finantza-tresna horietan, zuzenean edo zeharka, edo horiekin zerikusia duten beste edozeinetan; balore edo tresna horien salerosketan jardun daitezke, euren edo hirugarrenen izenean, aholkularitza edo bestelako zerbitzuak eman diezazkiekete balore edo tresna horien jaulkitzaileei, horiekin zerikusia duten enpresei edo berorietako akziodun, zuzendari edo enplegatuei, eta interesak izan ditzakete edo ezoin salerosketa burutu dezakete balore edo tresnokin, edo horiekin lotutako inbertsioak egin ditzakete, dokumentu hau argitaratu baino lehenago edo ondoren, indarrean den legeak baimentzen duen heinean.

Salmenta-saileko edo beste sail bateko enplegatuek, BBVAkoek nahiz Grupo BBVA taldeko beste erakunde batekoek, merkatu-iruzkinak egin ditzakete, ahoz zein idatziz, edo inbertsio-estrategiak zehaztu diezazkiekete bezeroei, dokumentu honetako iritzien kontra; hein berean, BBVAk edo Grupo BBVA taldeko edozein erakundek bere izenean inbertsio-erabakiak har ditzake, dokumentu honetako gomendioekin bateragarri ez izan arren. Dokumentu honetako ezoin zati ezin da (i) edozein era, euskarri edo baliabide erabiliz kopia, fotokopiatu edo bikoiztu, eta ezin da (ii) birbanatu edo (iii) aipatu, BBVAren aurretiazko baimen idatzirik gabe. Dokumentu honen zatirik ezingo da erreproduzitu, eraman edo bidali lekuan lekuko legeek debekatua duten herrialdeetara (eta ezingo zaie helarazi hango pertsonen edo erakundeen). Murritzeta hauek ez betetzeak dagokion legedia haustea adieraz dezake.

Erresuma Batuan, dokumentu hau honako hauei banatuko zaie soilik: (i) legeak aurreikusitako inbertsioetan eskarmentu profesionala duten pertsonen, betiere 2005eko aginduko (emendakinek barnean hartzen dituen bertsioan, aurrerantzean "agindua") 2000. urteko finantza-zerbitzu eta -merkatuen legeak (finantza-sustapena) 19(5) artikuluan dioenaren arabera; edo (ii) ondare handiak dituzten erakundeen, betiere aginduaren 49(2) artikuluko (a)tik (d)rako ataletan zehazten duenaren arabera; edo (iii) lege inbertsio bat egiteko gomendio edo proposamena jaso dezaketen pertsonen (2000ko finantza-zerbitzu eta -merkatuen legearen 21. artikuluko adierazten duenaren arabera) (aurrerantzean, pertsona horiek guztiak "pertsona adierazgarri" izango dira). Dokumentu hau pertsona adierazgarriei soilik zuzentzen zaie, eta pertsona adierazgarri ez direnek ez lukete berau oinarri hartu behar, ez eta beronen arabera jokatu ere. Dokumentu honetan aipatzen diren inbertsioak edo inbertsio-jarduerak soilik pertsona adierazgarrientzat daude eskuragarri, eta pertsona adierazgarriekin soilik gauzatuko dira.

Dokumentu honen ezoin zati ezingo da erreproduzitu, eraman edo bidali Ameriketako Estatu Batuetara, ez eta hango norbanako edo erakundeen helarazi ere. Murritzeta hauek ez betetzeak Ameriketako Estatu Batuetako legedia haustea adieraz dezake.

Txosten hau egin du (den analista edo egile(ar)en ordainsari-sistema aldagai askoren arabera) da, besteak beste BBVAk ekitaldi ekonomikoan lortutako diru-sarreraren arabera, eta, zeharka, Grupo BBVA taldearen emaitzen arabera, inbertsio-bankuaren jarduerak eragindakoak barne hartuta, nahiz eta ez duten ordainik jasotzen inbertsio-bankuaren inongo eragiketara zehatzen arabera.

BBVA ez da FINRAko kide eta ez dago horientzat aurreikusitako agerrarazte-arauei lotuta.

"BBVA Grupo BBVA taldearen Balore Merkaturko jokaera-kodeari atxikita dago; kode horrek, besteak beste, gomendioen harira, interes-gatazkak saihestu eta eragozteko jokaera-arauak ditu, informazio-mugak barne. Grupo BBVA taldearen Balore Merkaturko jokaera-kodea ikusgai dago ondoko web-helbide honetan: www.bbva.com / Gobierno Corporativo".

BBVA, S.A. banku bat da, Espainiako Bankuak eta Balore Merkaturaren Nazio Batzordeak (CNMV) gainbegiraturia eta Espainiako Bankuaren erregistroan 0182 zenbakiarekin inskribaturia.

Txosten hau Espainia eta Europako Unitateak prestatu du:

Ekonomia Garatuetaarako ekonomialari burua

Rafael Doménech
+34 91 537 36 72
r.domenech@bbva.com

España

Miguel Cardoso
+34 91 374 39 61
miguel.cardoso@bbva.com

Anabel Arador
+ 34 93 401 40 42
ana.arador@grupobbva.com

Joseba Barandiaran
+34 94 487 67 39
joseba.barandia@bbva.com

Xavier Callol
+34 91 374 75 28
xavier.callol@bbva.com

Mónica Correa
+34 91 374 64 01
monica.correa@bbva.com

Juan Ramón García
+34 91 374 33 39
juanramon.gl@bbva.com

Félix Lores
+34 91 374 01 82
felix.lores@bbva.com

Antonio Marín
+34 648 600 596
antonio.marin.campos@bbva.com

Myriam Montañez
+34 954 24 74 86
miriam.montanez@bbva.com

Mercedes Nogal
+34 91 807 51 44
mmercedes.nogal@bbva.com

Virginia Pou
+34 91 537 77 23
virginia.pou@bbva.com

Juan Ruiz
+34 646 825 405
juan.ruiz2@bbva.com

Pep Ruiz
+34 91 537 55 67
ruiz.aguirre@bbva.com

Camilo Andrés Ulloa
+34 91 537 84 73
camiloandres.ulloa@bbva.com

BBVA Research

Taldeko Ekonomialari Burua
Jorge Sicilia

Garatze bidean diren Ekonomiak:

Alicia García-Herrero
alicia.garcia-herrero@bbva.com.hk

Garatze bidean diren Ekonomien Zeharkako Analisia
Álvaro Ortiz Vidal-Abarca
alvaro.ortiz@bbva.com

Asia
Stephen Schwartz
stephen.schwartz@bbva.com.hk

Latam koordinazioa
Juan Ruiz
juan.ruiz@bbva.com

Argentina
Gloria Sorensen
gsorensen@bbva.com

Txile
Alejandro Puente
apuente@bbva.com

Kolonbia
Juana Téllez
juana.tellez@bbva.com

Peru
Hugo Perea
hperea@bbva.com

Venezuela
Oswaldo López
oswaldo_lopez@bbva.com

Mexiko
Carlos Serrano
carlos.serranoh@bbva.com

Analisi Makroa, Mexiko
Carlos Serrano
carlos.serranoh@bbva.com

Garatutako Ekonomiak:

Rafael Doménech
r.domenech@bbva.com

Espainia
Miguel Cardoso
miguel.cardoso@bbva.com

Europa
Miguel Jiménez
mjimenezg@bbva.com

Estatu Batuak
Nathaniel Karp
nathaniel.karp@bbvacompass.com

Arlo Globalak:

Inguru Ekonomikoak
Julián Cubero
juan.cubero@bbva.com

Finantza Inguruak
Sonsoles Castillo
s.castillo@bbva.com

Berrikuntza eta Prozesuak
Clara Barrabés
clara.barrabes@bbva.com

Finantza Sistemak eta Araudia:

Santiago Fernández de Lis
sfernandezdelis@grupobbva.com

Finantza Sistemak
Ana Rubio
arubiog@bbva.com

Pentsioak
David Tuesta
david.tuesta@bbva.com

Araudia eta Politika Publikoak
María Abascal
maria.abascal@bbva.com

Interesdunak, helbide honetara zuzendu:

BBVA Research

Paseo Castellana, 81 - 7 solairua
28046 Madrid (Espainia)
Tel.: +34 91 374 60 00 y +34 91 537 70 00
Fax: +34 91 374 30 25
bbvaresearch@bbva.com
www.bbvaresearch.com